

Ordizian, **2013ko martxoaren 7an**, UDALBATZA elkartu da UDALETXEKO BILKURA-ARETOAN **OHIKO BILERA** egiteko. Bertan izan dira honako hauek:

**BERTARATUAK:**

**BATZORDEBURUA:** Igor Eguren Izagirre jauna.

**BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:**

Belén Maiza Urrestarazu andrea	BILDU taldea
Izaro Intsausti Zinkunegi andrea.	BILDU taldea
Juan Mari Gereñu Aldasoro jauna	BILDU taldea
Edurne Gutierrez Jauregi andrea	BILDU taldea
Imanol Iturrioz Lauzirika jauna	BILDU taldea
Iban Asenjo Garde jauna	BILDU taldea
Jose Miguel Santamaría Ezeiza jauna	EAJ taldea
Judith Otegi Lopez de Murillas andrea	EAJ taldea
Jose Ignacio Iturrioz Gotor jauna	EAJ taldea
Arantzazu Garin Garmendia andrea	EAJ taldea
Bittor Bolinaga Alzelai jauna	EAJ taldea
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	PSE/EE (PSOE) taldea

**BERTARATU EZ ZIREN ZINEGOTZIAK :**

**IDAZKARIA:**

Martin Iparragirre Mujika jn.

**KONTUHARTZAILEA:**

Jose Luis Aramburu Otegi jn.

**ITZULTZAILEA:**

Izaskun Zubitur Iñarra and.

**BERTARATUAK**

## **EGUNEKO GAIAK**

### **EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:**

- 1.- 2013ko urtarrilaren 31ko ohiko Osoko Bilkurako akta onartzea.  
.....4.orr.
- 2.- EAJ-PNV aurkeztutako mozioa, edukiontzien sistema bidezko kontzientziazio kanpainak eskatuz.  
.....4.orr.
- 3.- 2013 ekitaldirako aurrekontuak.  
.....4.orr.
- 4.- 2013 ekitaldirako Plantila Organikoa.  
.....4.orr.
- 5.- 2013 ekitaldirako Lanpostuen zerrenda.  
.....4.orr.
- 6.- Ordiziako gazte lokalei buruzko Udal Ordenantzari onarpena ematea.  
.....4.orr.

### **PRESAZKO BIDETIK SARTUTAKO GAIAK:**

#### **GORABEHERAK**

#### **GALDE-ESKEAK**

#### **ORDUTEGIA**

**HASIERA ORDUA: 19.00ak.**

**AMAIERA ORDUA: 21:35ak.**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

### **1.- 2013ko urtarrilaren 31ko ohiko Osoko Bilkurako akta onartzea.**

#### Proposamena

**2013ko urtarrilaren 31ko ohiko deialdian egindako bileraren akta-zirriborroa onartzea.**

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

#### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Alkate in

Euskerako bertsioari dagokionez, akats hauek somatu ditu:

7. Puntuan (13.orrian) “trukaketaren balioa izango da: bi miloi hogeita hamabi **mili** zazpiehun eta berrogeita hamahiru euro eta hemeretzi xentimo” esaten duen lekuan esan behar du: “bi miloi hogeita hamabi **mila** zazpiehun eta berrogeita hamahiru euro eta hemeretzi xentimo esaten duen lekuan esan behar du”.

9. Puntuan (16. Orrian) “Arantzazu Berasategi **quitectos-k** idatzia” esaten duen lekuan esan behar du “Arantzazu Berasategi **arquitectos-k** idatzia”.

9 eta 10. Puntuetan: zein hirigintza delegazioetan hartu ziren erabakiak osatzea falta da.

#### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, EAJ 5, PSE-EE (PSOE)1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0.

**Alkate jaunak ondorioz, onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako 2. puntuaren berri eman du.

Santamaria jn

Mozioa irakurri du.

## **2.- EAJ-PNV aurkeztutako mozioa, edukiontzien sistema bidezko kontzientziario kanpainak eskatuz.**

### Proposamena

Guztioi beharrezkoa iruditzen zaigu hiri hondakinak jasotzean prebentzio lanak egitea, birziklatzea eta konposta egitea, kontzientziario eta sentsibilizazio neurriak martxan jartzeaz gain.

Sasieta Mankomunitatearen bitartez urteak daramatzagu lanean ildo honetan. Gaur egun gaikako bilketa egin dezakegu; beira, papera, ontzi arinak, materia organikoa, arropa eta olioia banatuta bilduz. Hala ere, Ordizian, oraindik aurrera egin dezakegu eta gaika hondakinak biltzeko datuak hobetu.

Inbertsioak dagoeneko amaitu dira eta ezagupenak eta azpiegitura teknikoak prest daude. Garrantzia berezia eman behar zaio materia organikoaren bilketari, oraindik arlo honetan asko egin behar baita, eta gaur egun pisu handiena honek du eta aukera gehien ere bai, gaur egungo "basura poltsa"ren edukia kontuan hartuta %40 organikoa baita.

Ordiziako Udalari dagokio erabakia hartzea, eta birziklapenean eta konpostajea aurrera egitea edukiontzien bidezko gaikako bilketaren bitartez.

Azaldutako guztiagatik, Ordiziako Udalak Sasieta Mankomunitateari eskatzen dio Udalarekin batera herritarrak kontzientziatzeko eta sentsibilizatzeko kanpainak martxan jartzeko eta hondakinak gaika edukiontzien bidez biltzeko emaitzak hobetzen jarraitzeko.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Santamaria jn

Adierazi du arlo honetan lan handia dagoela egiteko, eta bere taldeak apustua edukiontzien sistema erabiltzeaz gain oso beharrezkoak ikusten dituela sentsibilizazio eta kontzientziario kanpainak; bukatu du esanez orain urte bete atez ateko sistema ezartzearen aldeko erabakia hartu zenetik ez dela arlo honetan behar hainbeste lan egin.

Asenjo jn:

Adierazi du aurkeztutako mozio hau ez dela hondakinen inguruan aurkezten den lehenengoa, eta somatzen duela ez dela azkena izango. Bere taldeak berresten duela orain urte bete hasitako prozesua, eta baita berresten duela leloa eta helburua dela birziklapenari bai esatea eta errauskailuari ezetz

borobila ematea. Atez ate defendatzen dutela tresna eraginkorrena delako birziklapen portzentai altuena lortzeko, eta EAJ alderdiari edo beste edozein alderdiri eskatzen dio birziklapen portzentai altuago lortzeko atez ate baino sistema hoberik badauka jar dezala mahai gainean.

#### Santamaria jn:

Adierazi du ez direla birziklapena eta errauskailua nahastu behar, eta joan den astean Sasietan egin zen agerraldian hori garbi geratu zela eta uste duela birziklapenaren alde denak daudela, jarraitu du esanez ez duela uste atez ateko sistema denik eraginkorrena, eta bosgarren edukiontzioarekin birziklapen maila altuagoa lortzen dela, eta hori agerian geratuko dela denborarekin.

#### Asenjo jn:

Adierazi du garbi geratu zela Sasietako agerraldian gaikako bilketa potenteena atez ateko sistemarekin lortzen dela, eta %80raino iritsi daitekeela, eta bosgarren edukiontzioarekin hori ezin dela inolaz ere lortu.

#### Santamaria jn:

Adierazi du esandako guztia berresten duela, eta gai honen inguruan herri konfrontazio hitza aipatzen denean, bere alderdia ez momentu honetan eta ezta lehen ere, ez dela herri konfrontazioa bultzatzen ari.

#### Alkate jn:

Adierazi du hondakinen eztabaidarako irekita daudela bideak, eta bide berriak ere irekiko direla, beraz gai honetaz eztabaidatzeko lekuak izango direla; jarraitu du esanez hemen dauden talde eta eragiletara eztabaidarako foru publikoak egiteko deialdiak irekitzen saiatuko direla, nahiz eta orain arte eginiko saiakerak ukatuak izan, eta prest daudela edozein forotan gai honi buruz eztabaidatzeko.

### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 6 (EAJ 5,PSE-EE (PSOE)1)

Kontrako botoak: 7 (BILDU 7)

Abstentzioa: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena, ez onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako 3. puntuaren berri eman du:

### **3.- 2013 urteko ekitaldiko aurrekontua**

#### Proposamena

Osoko bilkurarako Gaietarako Batzordeak alkate jaunak idatzitako aurrekontu-proiektua aztertu zuen 2013ko otsailaren 20an egindako bilkuran, eta osoko bilkurara eramatea adostu zuen, bertan eztabaidatu eta onartzeko.

#### AKORDIO PROPOSAMENA

**Alkate jaunak idatzitako 2013ko aurrekontu-proiektua onartzea. Proiektuak honako kapituluak ditu laburbilduta:**

#### SARRERAK

KAPITULUA	IZENA	EURO
1	Zuzeneko zergak	2.351.055
2	Zeharkako zergak	200.000
3	Tasak eta bestelako diru-sarrerak	2.609.026
4	Transferentzia arruntak	7.402.418
5	Ondare sarrerak	210.332
6	Inbertsio errealak besterentzea	6.285.344
7	Kapital transferentziak	59.000
8	Finantza aktiboen aldakuntzak	45.000
9	Finantza pasiboen aldakuntzak	2.069.536
<b>GUZTIRA</b>		<b>21.231.711</b>

#### GASTUAK

KAPITULUA	IZENA	EURO
1	Langileen ordainsariak	4.657.347
2	Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea.	6.127.904
3	Interesak	281.482
4	Transferentzia arruntak	1.469.014
6	Inbertsio errealak	3.871.792
7	Kapital transferentziak	31.000
8	Finantza aktiboen aldakuntzak	45.000
9	Finantza pasiboen aldakuntzak	3.872.290
<b>GUZTIRA</b>		<b>20.355.829</b>

Honako aurrekontu hauek bat egitearen ondorio direnak:

**UDALAREN BERAREN AURREKONTUA**

<b>SARRERAK</b>		<b>GASTUAK</b>	
Kap. 1.-	2.351.055	Kap. 1.-	3.663.165
Kap. 2.-	200.000	Kap. 2.-	2.966.171
Kap. 3.-	1.032.800	Kap. 3.-	48.417
Kap. 4.-	5.994.821	Kap. 4.-	2.552.435
Kap. 5.-	65.600		
Kap. 6.-	304.000	Kap. 6.-	827.940
Kap. 7.-	59.000	Kap. 7.-	117.300
Kap. 8.-	45.000	Kap. 8.-	45.000
Kap. 9.-	511.072	Kap. 9.-	342.920
<b>GUZTIRA</b>	<b>10.563.348</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>10.563.348</b>

**“SAN JOSE EGOITZA” ERAKUNDE AUTONOMOAREN AURREKONTUA**

<b>SARRERAK</b>		<b>GASTUAK</b>	
Kap. 1.-		Kap. 1.-	756.142
Kap. 2.-		Kap. 2.-	1.844.011
Kap. 3.-	831.030	Kap. 3.-	
Kap. 4.-	1.762.123	Kap. 4.-	
Kap. 5.-	7.000		
Kap. 6.-		Kap. 6.-	
Kap. 7.-		Kap. 7.-	
Kap. 8.-		Kap. 8.-	
Kap. 9.-		Kap. 9.-	
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.600.153</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>2.600.153</b>

**“HERRI ANTZOKIA” ERAKUNDE AUTONOMOAREN AURREKONTUA**

<b>SARRERAK</b>		<b>GASTUAK</b>	
Kap. 1.-		Kap. 1.-	88.150
Kap. 2.-		Kap. 2.-	88.625
Kap. 3.-	53.100	Kap. 3.-	50
Kap. 4.-	114.725	Kap. 4.-	
Kap. 5.-	9.000		
Kap. 6.-		Kap. 6.-	800
Kap. 7.-	800	Kap. 7.-	
Kap. 8.-		Kap. 8.-	
Kap. 9.-		Kap. 9.-	
<b>GUZTIRA</b>	<b>177.625</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>177.625</b>

**MAJORI KIROLDEGIA SM-ren AURREIKUSPEN BALANTZEA**

SARRERAK		GASTUAK	
Kap. 1.-		Kap. 1.-	149.890
Kap. 2.-		Kap. 2.-	1.155.320
Kap. 3.-	692.096	Kap. 3.-	6.000
Kap. 4.-	684.176	Kap. 4.-	70.006
Kap. 5.-	24.244		
Kap. 6.-		Kap. 6.-	85.500
Kap. 7.-	85.500	Kap. 7.-	
Kap. 8.-		Kap. 8.-	
Kap. 9.-		Kap. 9.-	19.300
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.486.016</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>1.486.016</b>

**ORDIZIA LANTZEN SM-ren AURREIKUSPEN BALANTZEA**

SARRERAK		GASTUAK	
Kap. 1.-		Kap. 1.-	
Kap. 2.-		Kap. 2.-	73.777
Kap. 3.-		Kap. 3.-	227.015
Kap. 4.-		Kap. 4.-	
Kap. 5.-	104.488		
Kap. 6.-	5.981.344	Kap. 6.-	2.957.552
Kap. 7.-		Kap. 7.-	
Kap. 8.-		Kap. 8.-	
Kap. 9.-	1.558.464	Kap. 9.-	3.510.070
<b>GUZTIRA</b>	<b>7.644.296</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>6.768.414</b>

Ondoren idatzi den Aurrekontua Betearazteko Udal Araua onartzea:

*2013ko AURREKONTUA BETEARAZTEKO OINARRIAK*

1.- 2013ko urteko ekonomi ekitaldian, Ordiziako Udalak bere Aurrekontuaren hasierako kredituen guztizko zenbatekoaren gehienez ere % 1eko abalak eman ditzake. Erakunde autonomoek ezin izango dute hirugarrenen aurrean abalak eman, ezta inolako bermerik hitzartu ere.

2.- Gastuen Aurrekontuko honako kontusail hauek handitu daitezke bakoitzarentzat ezartzen den finantziazioaren arabera.

<b>GASTUAK</b>		<b>SARRERAK</b>	
<b>Partida</b>	<b>Kontzeptua</b>	<b>Partida</b>	<b>Kontzeptua</b>
227.611.00.07	Foru Aldundiak herri-zergak kudeatzeagatiko kontua	112.01, 112.02, 130.01 eta 130.02	Askotarikoak
227.611.00.09	Nahitaezko dirubilketarako	392.01 eta 393.01	Askotarikoak



	kontratua		
226.222.12.99	Ibilgailuak kentzea	310.05	Ibilgailuak kentzeagatiko sarrerak
212.222.12.01	Bideko seinaleak mantentzea (pilonak)	399.01	Matxurak eragiten dituztenen sarrerak.

Alkatetzaren dekretu bidez onartuko da kreditua handitzeko espedientea.

3.- Funtzio-multzo beraren barruan egin beharreko kreditu-transferentziak Arlo bakoitzeko ardura duen Delegatuak eskatu beharko ditu, eta alkate jaunaren dekretu bidez onartu beharko dira.

Kontusailak gainditzen badira, eta egoera horretan dagoen ordezkariak egin beharreko transferentziak egitea proposatzen ez badu, Ogasun Ordezkaritzak egokien irizten dituen kontusailak hartuko ditu.

Funtzio-multzo ezberdinen arteko kreditu-transferentziak Osoko Bilkurari dagozkie. Inbertsioetarako kredituak murriztea ekarriko duten kreditu transferentzien espedienteetarako, Osoko Bilkuraren erabakia beharko da. Gai horretan, Alkate jaunarentzat zehaztutako eskumen berberak izango dituzte Erakunde Autonomoetako buruek.

4.- Kontu-hartzaileak prestatuko du kredituak erabiltzeko espedientearen zirriborroa, horretarako honako faseetan geratu diren gastuei erreparatuko die: abenduaren 31n Baimenduan (B) edo Xedatutakoan (X) zeudenak. Alkate jaunari dagokio espedientea onartzea.

5.- Alkateak kreditu gehigarrien espedienteak onar ditzake, baina beti ere, metatuz gero, diru-sarrera aruntzen aurrekontuaren %5a baino gehiagokoa ez bada.

6.- 'Maileguak langileei' 833.121.00.01 kontusaileko kredituak eskuratzeko, interesdunek eskaera egin beharko dute, eta proposatutako eta aurrekontuan jasotako gastua justifikatu beharko dute. Ogasun Ordezkaritzak ebatziko du mailegua ematea bidezkoa den ala ez; oniritzia jaso gero, alkate jaunaren dekretuz betearaziko da.

7.- Dedikazio eskusiboa duten kargu politikoen eta zinegotzien ordainsariak gutxitu egin dira aurrekontu hau doitu ahal izateko, krisi ekonomikoak kaltetu dituen pertsonetako elkartasunean.

8.- Aurrekontuan aurreikusitakoak baino diru-laguntza finalista handiagoak emateko, kopuru berdineko gastu-kredituak gaitu beharko dira dagozkien gastu-partidetan. Alkate jaunak baimenduko du gaitze hori.

9.- Honako hauen inguruko gastuak egiteko:

- Langileak kontratatzea
- Lanak kanpokoekin kontratatzea.
- Mantentze-lan hutsak ez diren obrak edo lanak udal-zerbitzuek beraiek egitea
- Material inbentagarria erostea.

Alkatetzaren dekretu bidezko alde zuzeneko aurrekontuaren behar izango da, eta aurrez kontu-hartzailearen txostena eskatu beharko da. Alkatetzaren aldeko dekretua jasotzen ez den bitartean, erabat geldituko da gastu-espeditentzaren tramitazioa.

10.- Bi (2) hilabetean behin kontu-hartzaileak aurrekontu-partiden egoeraren berri emango die ordezkariari; horiek behar diren neurriak hartu beharko dituzte onartutako kreditua ez gaitzeko. Erabilgarri dagoen kreditua behar adinako ez dela irizten bada, bai aparteko gastuak izan direlako, bai Aurrekontua egiterakoan ezagutzen ez ziren beste premia batzuk daudelako, dagokion Ordezkariak kreditu-gehigarri ematea proposatuko du; horretarako, dagokion finantziarioa proposatu beharko du, edo kreditu-soberakina eskatu beharko du, halakorik balego.

11.- Dietak.- Udalaren ordezkariak, Alkateak eta Zinegotziak, eta udal-langileek joan-etorriengatik sortzen zaizkien gastuak kobartzeko eskubidea izango dute, beti ere joan-etorri horiek udalaren eskumenekoak diren gaiak kudeatzeko egiten direnean; horretarako, Korporazioak baimena emana behar du. Gastu horien kopurua honako hau izango da:

Autonomia Erkidego barruko joan-etorria norberaren ibilgailuan, 0,29 euro/km. Gosariak: 6 euro. Bazkaria: 16 euro. Afaria: 16 euro.

Ostatu hartzea: gehienez pertsona/eguneko/ 100 euroko gastua duen hotela.

Ikastaroetara nahiz azoketara joanez gero, bazkari, afari eta ostatu hartzeko ere ezarritako mugak aplikatuko dira. Erakunde arteko harremanengatik aipatu horiek baino gastu handiagoak egin behar direnean soilik estaliko ditu horiek Udalak, aurrez gastuei dagozkien fakturak ekarrita.

Kredituak likidatzerakoan, agiriak egiterakoan edo konpromisoak hartzerakoan Udaleko buru, funtzionario eta kideek ordainketa oker guztiak itzultzeko erantzukizuna izango dute, hartuta dituzten eginkizunen arabera. Edozein motako agintari eta funtzionarioek, iruzurratik, erruagatik edo arduragabekeria larriagatik lege-xedapenak hautsiz erabakiak hartu edo egintzak egiten badituzte, horien ondoriozko kalte eta galerak ordaintzera behartuta daude Korporazioari.

Dena dela, gastuak eta ordainketak egintzen dituenak eta kontu-hartzaileak, aipatu gastu eta ordainketa horiek desagokiak direla idatziz ohartarazten ez badu, baimentzen dituzten behar adinako krediturik gabeko gastu guztien erantzule izango dira, baita aitortzen, kitatzen edo ordaintzen duten obligazio guztien erantzule ere.

13.- Salmentak.- Alkatetzaren aginduz egingo da ezertarako ez diren gauzen salmenta, aipatu gauzek 360.- euro baino gutxiago balio dutenean. Nolanahi ere, esan behar da Udalaren beste erabakirik behar ez duten salmentetarako oinarria dela hori.

14.- Alkateak ez du bere eskumenik inoren esku utzi, eta ondorioz, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21. artikuluan xedatutakoak ditu bere esku.

15.- Kredituen lotespen juridikoaren mailak honako hauek izango dira:

Funtzio-programa eta azalpena.

Transferentzia arruntak eta kapital-transferentziak  
Inbertsio errealak  
Finantza aktiboen aldakuntzak  
Funtzio-programa eta azalpena.  
2. kapitulua (elektrizitate, ur, gas eta erregai horniduren partidak izan ezik, hauek Aurrekontu osorako azpikontzeptu ekonomiko gisa azalduko dira).

Kapitulua  
Langile gastuak  
Finantza gastuetako 3. kapitulua eta Finantza Pasiboen aldakuntzetako 9. kapituluak uztartuta geratzen dira.

2. kapituluko kontusail askoren gastuak urte guztian zehar sortzen direla kontuan hartuta, eta, kredituen lotespen juridikoaren mailak zorrotz aplikatzearen ondorioz, aipatu kontusailtako kredituak agortu ez daitezen, kontu-hartzailetzaren aurrekontu-partidarekiko kontrola 2013ko azarora arte egingo da.

Gainera, ondorengo kontusail hauei, banan-banan, urte osoan egingo zaie jarraipena, nahiz eta azkenean artikulua honen hasieran ezarritako kredituen lotespen juridikoko mailak aplikatu.

PARTIDA	IZENA
226.111.00.02	Protokolo-arretak, gobernu-organoak
231.111.00.01	Dietak, joan-etorriak, gobernu-organoak.
213.222.11.01	Ibilgailuen mantentze-lana, udaltzaingoa.
210.222.12.01	Bide-seinaleen mantentze-lana, trafikoa.
211.422.12.01	Eraikinen mantentze-lana, Urdaneta ikastetxea.
212.422.12.01	Makineria, instalazio eta lanabesen mantentze-lana, Urdaneta ikast.
227.432.10.07	Hirigintzako azterketa teknikoak
212.433.00.01	Makineria, instalazio eta lanabesen mantentze-lana, argiteria.
212.434.11.01	Instalazio, parke eta lorategien mantentze-lana.
210.441.20.01	Makineria, instalazio eta lanabesen mantentze-lana, saneamendua.
226.451.10.99	Kultur ekintzak
226.454.11.99	Herriko jaiak
226.454.12.98	Euskal jaiak Beste ospakizun batzuk
226.454.12.99	Euskal jaiak Asteazkena.
226.454.13.98	Eguberrietako apaingarriak
226.454.13.99	Eguberriak
210.511.00.01	Bide publikoen mantentze-lanak
226.622.31.91	“Artzain Eguna” azoka
226.622.31.92	Erdi Aroko Azoka
226.622.31.97	Ardo Azoka
226.622.31.99	Eguberrietako ezohiko azoka.

16.- Ordainketak. Ordainketak, oro har, banku-transferentzia bitartez egingo dira.

Ordainketak, faktura Udalaren kontu-hartzailletza departamentuan sartu edo faktura data baino 30 egun lehenago egingo dira; bi datak oso desberdinak badira, obra-ziurtagiriaren data kontuan izango da; betiere, nahitaezko oniritzia edo akordioa badu.

Ordizian, 2013ek martxoaren 4an.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Insausti and.

Hartu du hitza eta 2013ko aurrekontu-proiektuaren aurkezpena egin du. Hasi da esanez agintaldi honetako bigarren aurrekontuak direla, bizitzen ari garen krisialdi estrukturala dela eta, aurrekontuak errealitatean oinarritzen direla, krisialdiari aurre egiteko neurri zehatzak proposatzen direla, eta aldi berean Ordizia herri bizia eta dinamikoa izan dadin aurrera begira jartzen gaituzten proiektuetan jarri direla sinesmenak eta indarrak. Jarraitu du esanez honako hauek direla aurrekontuen 3 helburu nagusienak:

- Zerbitzu sozialak mantendu eta hobetzea.
- Enplegu sustapena bultzatzea.
- Bere taldeak lehentasuna dutela kontsideratzen dituen sailak indartzea: berdintasuna, euskara, ingurugiroa, jasangarritasuna, eta abar.

Helburu horiek lortzeko honako hauek dira proposatzen diren programa zehatzak:

- Alokairu soziala, aurreko enplegu sustapen planean etxebizitza hutsen lana oinarritzat hartuta, alokairu soziala programa bultzatuko da, eta horren jarraipena egiteko enplegu sustapen programaren barruan pertsona bat kontratatuko da.
- Berdintasuna: saila indartzeko beharra ikusita eta Foru Aldundiak lagunduta teknikari berri bat kontratatuko da lanaldi erdira, aipatu %100tik 100<sup>a</sup> Foru Aldundiak finantzatuko duela eta kontratatzeke jasoko den 18.800,00 euroko dirulaguntza ez dela aurreikusi sarreretan, zeren eta gaur arte ez da dirulaguntza horren behin betiko konfirmaziorik egon, eta ados egonez gero kopuru hau sartu egingo da gaur aurrekontuetan.
- Enplegu sustapena: nahiz eta aurreko urteetan Eusko Jaurlaritzak dirulaguntza eman duen enplegu sustapena bultzatzeko, aurten dirulaguntzarik izango ez denez, Udalak finantzatuta eta egoera ekonomikoa aintzat hartuta, zerbitzuetan dauden beharrak ikusita eta zerbitziburuekin aztertu ondoren, ikusi diren beharrei aurre egiteko 10 kontratazio egitea aurreikusten da.
- Partaidetza eta komunikazioa: nahiz eta iaz partaidetzatik prozesu desberdinak jarri (tartean Oiangukoa), aurten komunikazio arloa indartzeko beharra ikusi da, eta komunikazio zerbitzua kontratatuko da.

- Merkataritza sustatzeko plana: negozio txikiak suspertzeko, eta Udalean hutsik geratzen ari direla lokalak ikusita, negozio txiki berriak martxan jartzeko lokalak alokatzeko dirulaguntzak aurreikusten dira.
- Herriko elkarte eta taldeen laguntzak mantentzea: laguntzak mantenduko dira.

Inbertsioei dagokienez honako hauek aipatu ditu:

- Iaz erositako Nadal lokalaren 2en ordainketa.
- Oianguko partehartze prozesuan lehenetsitako proiektua: baserriko teilatua konpontzea hain zuzen ere.
- Auzoz auzoko dinamikan partehartze prozesuaren bitartez herritarrekin erabakitako 100.000,00 eurokoak honela gastatuko dira:
  - Eskarabilako atsedeen lekua.
  - Plaza Nagusiko komunaren konponketa.
  - Otegi-Eneako ezinduentzat arrapala.
  - Otegi-Eneako seto-landaketa.
  - Okorroko parkearen konponketa.
  - Zumalakarregi kaleko zuloen konponketa.
- Aspaldidanik dagoen eskaera bati erantzuteko musika taldeentzako lokalak aurreikusi dira.
- Urdanetako erdi-peatonalizazioa, mugikortasun planatik abiatuta; hemen gogorarazi du momento honetan mugikortasun plana erredaktatzen ari dela eta ekainean bukatuko dela.

Aurkezpen hau bukatzeko adierazi du ongizate partidaren drogomenpekotasuneko ekintzak aurrera eramateko 10.000,00 euro aurreikusi direla, baina denak partida baten sartu direla, 15.000,00 euro aurreikusten ziren 226.06 partidaren hain zuzen ere eta hori azkenean 20.000 eurora igoko da, eta hor sartzen dira 10.000,00 euro aurreko urteko heziketa sozialeko programak eta 10.000,00 euro drogomenpekotasuneko ekintzak, eta 5.000,00 euroko diferentzia orekatzeko, zehaztu gabeko 16.600,00 euroko kontsignazio duen 227.04 partidatik 5.000,00 euro kentzen direla eta 11.600,00 euro geratzen direla partida horretan.

#### Santamaria jn:

Bere interbentzioa hasi du esanez ez zekitela emendakina idatziz aurkeztu behar zenik, eta idatziz egin ez badute ere, beraien asmoa da osoko emendakina aurkeztea, eta bere interbentzioan bi alderdi izango ditu kontuan: Alderdi tekniko eta aurkeztutako aurrekontuaren analisiaren alderdia.

Alderdi teknikotik, bere interbentzioan ondorengoa azaldu du:

Orokorrean, ondorengoa hauteman dugu:

- Ezezagutza, azken orduko aldaketekin inprobisazioa, batez ere azken bi asteetan eta baita Osoko Bilkuran bertan ere.

- Informazioan hutsuneak, funtzio edota partidetan azalpen dezente falta dira.
- Komunikazio gabeziak teknikari eta politikarien artean

Diru-sarrerei dagokienez:

Kontuan izanik zalantza handien testuinguru batean gaudela, Foru Funtsean zentratuko gara. Udalak duen finantzazio-iturri nagusia baita. 2010etik eta zehurtzia erabiliz funtsaren diru-sarreraren aurreikuspena %5ean jaitsi izan dugu, iaz proposatu genuen eta ez zitzaigun kontuan hartu. Eta 5.071.878 €ko aurreikuspena egin genuen, eta ez Aldundiak aurreikusitakoan, hau da 5.314.197 €. Bukatzeko, behin betiko likidazioa 5.134.197 €an geratu da.

Aurten, ordea, eta adierazle guztiek ekonomiaren portaera okerragoa erakusten badute ere, kopuru berbera erakusten du. Gure iritziz, ez da aurreikuspen errealista. Eta bere horretan arriskutsua iruditzen zaigu. Batez ere, Bizkaian, esate baterako, funtsak aurten % 5eko murrizketa izan duela jakinda.

Beste ohar bat egitearren, udalaren altxortegiaren egoerak kezkatzen gaitu. Horren lekuko dugu interesengatik sarreraren partidak izan duen beherakada nabarmena. Teknikarien arabera, beren kezka 'dagoeneko saldirik gabe gaude, izorratuta' esaldiarekin islatzen dute. “

Eta ez da harrizkoa. Ekitaldi honetan 2009ko Foru Funtseko 430.000 €-ak itzuli beharko ditugu (gordailu gisa utzi ditugu), baita 2012an *sobera kobratutako eta gastatutako* 190.000 €-ak ere, nahiz eta horren gastua aurrekontuan jasota egon ez! Horrez gain, aurrekontu honek zorpetzeko ezarritako aurrekontu-egonkortasunaren printzipioa urratzen du. Zor handiagoa edukiko dugu, dagoeneko dugun zorra baino dezente garestiago.

Langileria-gastuen atalak izan duen gorakadak ere kezkatu egiten gaitu, eta oraindik ez du erantzunik. Portzentajeak batzuetan altuak dira (% 7tik % 10era bitartekoa), are gehiago soldadak, ustez, izoztuta daudenean. Hainbatetan galdetu diegu, eta ez dakitela eta begiratu behako dutela erantzuten digute.

Gure iritziz, ez da legezkoa berdintasunerako bigarren teknikaria kontratatzea, ezta lanpostuen balorazio ezagunaren 200.000 € baino gehiago hiru urtetan banatzen duen partida gehitzea ere.

Gure iritziz, kezkarria da, orobat, aurrekontuaren gauzate-maila, batez ere gizarte-zerbitzuei dagokienez. Kudeaketa- eta laguntza-partidan kontuan hartzen baditugu, ez da gastatu % 26 baino gehiago.

Bitxikeria gisa, ez dugu ulertzen nola litekeen aurreikuspenetan Erdi Aroko Azoka ez agertzea, eta, hala ere, diru-sarrera aurreikustea azoka horretarako.

Eta, azkenik, aurrezki arrunta, sarreraren % 0,7 alegia; datu hori kezkarria da, eta oso kontrol zorrotza eskatuko du.

Kontusailei dagokienez, honako hau azaldu du bere esku-hartzean:

Aurrekontuak aurkeztean, helburua beraienez lehentasunezkoak diren kontusailei eustea dela esan ziguten: euskara, kultura eta gizarte-zerbitzuak. Ez zen arrazoiketa gehiagorik egon.

Azalpen horrek helbururik eza uzten du agerian, itxurak betetzea eta ahal den neurrian iraganeko kritika piztuko ez duten aurrekontuak aurkeztea baino ez. Eta horrela ez dugu ataka gaindituko. Izan ere, ez dute aintzat hartzen gure gizarteak une honetan behar duen bultzada.

Eta datu garrantzitsua *ezkutatu* zuten: atez atekoa, hauek atez atekoaren aurrekontuak baitira.

Analisi honetan honako ardatz hauek proposatzen ditugu:

1. ardatza- Gizarte-eredu bakarra bultzatzea: Bildurena.

laz egin genuen kritikan, aurrekontu politikoak zirela aipatu genuen, eta 'nola ez, politikoak gara' erantzun ziguten. Baina, bada ahazterik ez dugunik, Bilduk ordiziar guztientzat gobernatu behar du, ez soilik haren boto-emaileentzat. Guztiak hartu behar ditu aintzat. Eta, errealitateari erreparatuta, Bilduk bere egitura instituzional paraleloa sortu duela jabetuko gara, gainerako herritarrei bizkar emanda. Horrek agerian uzten du ez dutela gaitasunik edo interesik desberdinarekin akordiotara edo adostasunetara iristeko. Seguruena ere, goitik ondo definiturik datorren estrategia politiko bati erantzuten dio.

Ondorioak: horrek gizarte-haustura garrantzitsua dakar, eta bada ordua iraganeko ereduak alde batera uzteko eta akordioetara iristeko.

Horren lekuko ditugu honako kontu sail hauek:

1- 226.06 Jarduera soziokulturalak: 6.000 €, kontusail hori 'Euskal memoria historiako' finantzatzeko da.

2- 422.01 Eudel-ekarpena: 0 €, desberdinekin akordioetara iristeko gaitasun ezaren adibide garbia; Eudel izan da desberdinen artean kudeatzeko erabili izan den esparrua. Orain kontua da 'dena ala ezer ez'; bere modura planteatu behar da, edo, bestela, ezer ez.

3- 481.01 Udalbiltzari diru-laguntza; 10.000 €, hemen Bildu bakarrik dago, baina eroso. Prentsaren bitartez jakin dugu.

4- 481.03 Transferentzia irabazi asmorik gabeko elkarteei, 9.250 €, 'Nazioen Mundua', presoen senideak eta etor daitezkeenak.

5- 324.00 Partaidetza eta komunikazioa: Zein da kontusail horien helburua? Susmoa hartzen dia) Komunikazio-ekintzak: 6.000 €-tik 27.000 €-ra, 21.000 € gehiago.

a) Komunikazio-ekintzak: 6.000 €-tik 27.000 €-ra, 21.000 € gehiago.

b) Parte-hartzeko prozesuak: adierazi ziguten aurten 'parte-hartze gutxiago eta komunikazio gehiago' izango zela.

c) Publizitatea, 6.000 €, partida berria.

6- Diru-laguntza garapen jasangarriaren arloan diharduten talde ekologistentzat, 1.000 €; 'Zero Zabor' taldearentzat.

7- Berdintasuna: helburuak politika feminista bati bultzada ematea da, ez berdintasuna, eta horretarako bigarren teknikaria kontratatu dute berdintasunaren arlorako.

Gutierrez andreak galdetu dio ea feminismotaz zer ulertzen duen.

## 8- Hondakinak kudeatzea: atez atekoa inposatzea.

### ▪ 2. ardatza- Marketin politikoa:

Batetik, beren interesekoak diren partidak koadratzeko eta herritarrak limurtzeko belarrietatik ondo sartzen diren partidak sartzeko asmo argi eta garbia ikusten dugu, baina errealitatea hori baino ez da, ez baitiote helburu teknikoei edo plangintza bati erantzuten.

Horren adibide garbiak dira:

1. Gizarte-zerbitzuen eginkizuna: % 0,24ko igoera xumea. Errealitateak, ordea, erakusten digu iazko aurrekontu gauzatzea ez zela % 74ra iritsi. Kudeaketa gutxiren, herritarrei bideratutako informazio-kanpaina ezaren seinale, ulertezina da GLLek erdia gastatzea, edo etxez etxeko laguntzan aurten 30.000 € baino gehiago proposatzea 'sor daitezkeen gastuetarako'; horri oinarri tekniko handia, edo ez ote da aurrekontua itxuratzea? Ez gaude ados gizarte-ongizatean ageri den **30.000 €**-ko partida horrekin; ez horren premian sinesten ez dugulako, aurrekontuan definitzen den xedearen sendotasunik ezagatik baizik: 'beharko balitz ere'. Nola programa daiteke udalaren jarduera atal honetan hasierako zehaztasunik eza horrekin? Garai hauetan eta benetan kopuru hori xede jeneralista horretarako bideratu asmo badago, kudeaketa minimo batekin ez liokete emango helburu zehatz bat?

2. 2.013 rako 6 etxebizitza alokairu soziala sustatzeko?: nola kudeatu behar da programa hau?.

Horren premia zalantzan jarri gabe, Eusko Jaurilaritzako Etxebizitza Sailarekin hitz egin al da eskaeraren errealitatea zein den ezagutzeko? Programak sei hilabetetarako aurrekontua du; zein jarraipen edukiko du, nola kudeatuko da horren jarraipena maizter berrieekin, nola arautuko da? Betidanik salatu izan dugu eskumenen banaketa, ez zaigu gehiago kostako eta kudeaketaz, koordinazioaz, eta halakoez ari naiz. Ez al zatekeen errazago izango Floreagan aurreko legealdian itundutako alokairuko etxebizitzak garatzeko, Etxebizitza Sailarekin akordioa ixtea legealdiaren hasieran?

3. Enplegua sustatzea: argi izanik enplegua sustatu beharra dagoela, berriro ere, batetik, sortzea besterik gabe; izan ere, eginkizun hori betidanik finantzatu du INEMek edo Lanbidek, eta diru-laguntzarik ez dagoenez, zeron geratzen da, eta, bestetik, eskumenen afera. Gureak ez diren eskumenak hartzen ari gara gure gain, eta nahikoa lan dugu gure eskumenekin. Gure galdera da zer-nolako gestioak egin diren: a) Eusko Jaurilaritza/Lanbiderekin; b) egindako kontratazioak Goiekik landutako enplegu-planarekin koordinatu al dira?; c) aurrera begira sektore pribatuan egonkortasuna bultzatuko duten helburuen esparrua al du? Ez al litzateke hobe izango enpresa-ekimenerako politikak bultzatzea enpresa berriak sortze aldera? Edo egun dauden ETEei laguntzea?

### ▪ 3. ardatza- Penagarriak gizarte-arloan:

Aurrekontuek gizarte-kohesioa izan behar dute abiapuntu, eta ekonomiari eman behar diote bultzada; keinuren bat gorabehera, ezer gutxi daukagu. Ordiziak, gainera, ehun asoziatibo sendoa du, une hauetan preseski udalaren babesa behar duena. Eta ikusten dugu aurrekontu honek ez duela aipatutakoa lortzen laguntzen.



Hainbat adibide jarriko ditugu argudiatzeko:

Punch galera: Ordizian erroturik dauden aktibo garrantzitsuak pairatzen edo desagertzen ari direla antzematen ari gara. Esate baterako, pasa den urte honetan ez da Urpeko Nazioarteko Irekia egin. Beste batzuk ere pairatzen ari dira, udalaren babes behar dute, baterako lidergoa batzuetan ez da soilik dirua. Barduloez ere ez dute beren kontzentrazioa antolatuko, eta horri aurre Erdi Aroko Azoka ez dela antolatuko gehitu behar zaio. Ordizia deskapitalizatzen ari da, merezi du herriko ehun asoziatibo guztiarekin (kirolak, boluntarioak, eta abar) ahalegin bat egitea.

Hainbat partida murriztu direla ikusten dugu; besteak beste, irisgarritasuna hobetzeko (erdira), edota etxeak zaharberritzeko. Kontuan hartu beharreko kolektiboak dira.

Gizarte-zerbitzuen arloak aparteko kapitulua merezi du, areagotu egiten baitu aipatu punch galera. Ordizian 25 urteko tradizioa zuen eta eskualde mailakoa zen zerbitzu baten galeraz ari naiz. 25 urteko lana pikutara bidalia. Ez dira ulergarriak zerbitzua ematen zuen pertsonarenganako giza tratua, ezta ibilbidearekiko mespretxua ere. Arlo horretan kudeaketa txarra baino txarragoa da hainbat ikuspuntutatik: batez ere lanaren ikuspuntutik, baina baita garai hauetan garrantzi handiagoa hartzen duen zerbitzu bat ez ematearen ikuspuntutik ('berdintasunerako' laguntzak, 'droga-mendekotasunerako' ezer ez), eta eskualde-mailako zerbitzu bat galdu izanaren ikuspuntutik ere (Beasainera doa). Lan lardats kamuflatua. Diru-laguntzak galtzea, horiek Ordizian zuten onura galtzea.

Proposamena

420.01 Zerga itunduetan partaidetza 5.303.218,40 -190.434

#### 111.00 GOBERNU ORGANOAK

121.05	Funtzionarioen beste ordaindariak	-70000
226.06	Udal ekintza sozio-kulturalak	-6000
422.01	Eudel-i ekarpena	1500
481.01	Udalbiltza-ri dirulaguntza	-10000
481.03	Irabazi asmorik gabeko erakundeentzako transferentzia	- 9250

#### 313.30 DROGOMENPEKOTASUN AURKAKO ZERBITZUA: zerbitzua berreskuratzea

#### 313.31 BERDINTASUNA

Laguntza teknikorako eta azterketetarako partidak daude eta Kristinak erabili ditzake

313.99 ONGIZATE SAILA: Informazio kanpainen bitartez saila sustatzea.

227.04 Hitzarmen kultural eta sozialak 228051,35 //280614,18//285000//238471,47//275000//0,964912281

480.02 Larrialdirako laguntzak 112475,21//70293,51//89000//45303,34//89000//1

480.03 Pasadizokoei dirulaguntzak 445,98//587,5//600//377,35//600.  
 480.05 Udal zergak ordaintzeko laguntzak 10782,2//6839,17//10000//5496,17//10000//1  
 480.07 Familientzako laguntzak 16203,5//5136,62//15500// 6906,9//15500//1  
 480.08 Umeak larrialdi egoeran duten familientzako laguntzak 10188,31//11060,04//16000//  
 10568,59//16000//1  
 481.02 irabazi asmorik gabeko erakundeentzako transferentzia//7250//5745//9500//6000//9500// 1  
 481.03 Pobreziaren aurka borrokatzen duten Entitateei laguntzak//2000 //2000//2000//2000// 1//  
 427600 315123,82//417600  
 324.00 PARTAIDETZA ETA KOMUNIKAZIOA  
 226.03 Komunikazio ekintzak -21000  
 226.98 Publizitatea -6000  
 432.10 HIRIGINTZA  
 480.01 Etxebizitzak birgaitzeko dirulaguntzak 20000 + 10.000  
 480.02 Eraikinen birgaitze eta mugikortasuna bermatzeko dirulaguntzak 8000+ 8000  
 444.00 GARAPEN IRAUNKORRA  
 226.06 Naturaren konserbazioarekin lotutako aktibitateak 5000//-10000  
 481.01 Irabazi asmorik gabeko erakundeentzako transferentzia 0// -1000//  
 GARAPEN SUSTAPENA  
 451.40 ORDIZIA 2012

Proiektu hau partidarik gabe uzteak ez dauka zentzu handiegirik, eta polifazetikoa dela iruditzen zaigu (turismoa, merkataritza, lehenengo sektorea, Plazako saltzaileak...), ekonomia sustatzen laguntzen du eta arlo honetan erreferente izaten laguntzen du.

Ekintzaile izatea sustatzeko partida sortzea, eta enpresen arteko lankidetzeta eta kooperazioa sustatzea.

622.30 ASTEAZKENETAKO FERIA: horren sustapena

622.31 AZOKA BEREZIAK

-Hobe da aurten erdi Aroko Azoka egitea bestela Segurakoarekin bat egingo du. Horretarako datorren urteko gastuaren aurreikuspena hartu beharko litzateke kontuan, zatitu baitaiteke.

-Herri txikiek lan egitea eta elkarri laguntza ematea: Segura-Ordizia, Ordizia-Segura.

Kirolak: lehenbailehen pabilioiaren proiektuari heltzea, kirola sustatuz. Jarduera berriak bultzatu kirolaren beharrei erantzuna emanaz eta bukatzeko aurrekontua orekatzen duten diru-sarrerara gehiago lortu.

Aurten Ordizian kultur urtea izatea porposatzen dugu, eta alferrik galtzen ari da. Ospakizun baten bitartez aukera galtzeak harritzen gaitu, Nikolas Lekuonaren figurari balioa emateko aukera handi hau galtzeak, bere jaiotegunaren mendeurrenean. Efemeride honen bitartez Ordiziako balore berriak bilatu eta bultzatu zitezkeen.

Alkate jn:

Lehenik eta behin bere harridura azaldu du Santamaria jaunaren interbentzioaren aurrean, enfoke guztiz bestelakoa erabiliko zuela pentsatzen zuelako, eta iaz txarra izan bazen aurtengoa txarragoa izan dela dio. Lehenik eta behin ere esan du erantzuteko ez duela erabiliko EAJ taldeak eta Santamaria jaunak erabili ohi duen formula, baizik eta proposamen zehatzak ez dira eztabaidatuko

gaur arte ezer konkreturik aurkeztu ez dutelako; gogorarazi dio hilabete eta piko izan dutela proposamenak helarazteko, eta hori gutxi balitz baita Udal Osoko Bilkura astebete ere atzeratu dela EAJ taldeak eskatuta denbora gehiago izateko aurrekontuak aztertu eta proposamenak helarazteko. Jarraitu du esanez oso interesgarria izango litzatekeela orain astebete gutxienez proposamenak helarazi balituzte, ikusita oso nabarmen egin duela alegatua, aurrekontuak ez direla izan behar politikoak esaten duenean, baina irakurketa osoa egingo bagenu aterako genituen ondorioak oso bestelakoak direla.

Ez dio inongo zentzurik aurkitzen ia bi urteko agintaldian herriarekiko inongo proposamen konkreturik ez egitea eta ez ekartzea, eta udal Gobernu honek, Santamaria jaunak dioen bezala nahi badu kudeakerako ezagutza gehiago edo gutxiagoarekin, baino berak kudeatu duen tekniko berdinekin lan eginda, nola den gai esaten dituen gauzak esateko, eta behin eta berriro eskatu zaionean biltzeko, orain oso lanpetuta dabilela, lehen Osoko Bilkurak goizeko 8:00 edo 9:00etan egiten ziren, eta orain Bilkurak bere konbenientzira egiten dira, eta hala ere ez da iristen eta ez dauka denborarik proposamenak helarazteko; nola liteke hona etorri eta 25 minutuko alegatu bat egin ezer ez esateko, eta helburu bakar batekin, Udal talde honen, gobernu era, kudeaketa eta arrazoiak hankaz gora botatzeko, ez du entzun zentzuzkoa duen inongo proposamenik, nahiz eta gaur proposamenen bat egin duen, baina eztabaidatzeko aukerarik gabe, nola eztabaidatuko dira ezagutzen ez diren proposamenak?; dena den orain bi urte Santamariak egin zuen eta gaur berretsi duen gogoeta batekin jarraituko duela adierazi du “debemos gobernar para toda la ciudadanía”, lehenengo galdera da Ordizia herri euskalduna izanda, Udalbatzak euskaraz funtzionatuta, eta Santamaria jauna euskalduna izanda nori zuzentzen dion gogoeta hori, eta ziur asko erdaraz egitea izango duela bere esplikazioa; feminismoaren galdera egin zaionean, hori ez galdetu zeren eta “señores” aipatu du eta hor ikusi da bere feminismoaren zentzua; plano teknikoa aipatu du, ezjakintasuna, inprobisazioa azken bi asteetan, berak 4 aste izan ditu eta ez da izan kapaza ezer helarazteko; informazio eza, komunikazio eza, komunikazioa indartzea Santamaria jaunarentzat da atez ateko ez dakit zer indartzea. Jarraian Santamaria jaunari zuzendu zaio honako hau esanez: “komunikazio indartzea da herritarrei komunikatzeko bideak erraztea, eta ez aholkulari komunikatibo bat edukitzea nahi diren inizatibak agertu eta nahi direnak ezkutatzeko eta behar bada horregatik euskara eta erdararen bereizketaren arazoa hortik dator. Foru Funtzaren sarreretatik ere aipamena egin du, mila bider egin du galdera hau, bai beraiei eta bai teknikoei; zergatik eta nondik norakoak azaldu zaizkio, baino hala ere berriro aipatu du; ahaztu egiten zaigu foru funtsak eragin bat izango duela udal guztien handikuntza ekonomikoan, jatorri bat duela, baino ahaztu zaio esatea baita ere guk argudiatu dugun aldundiarekiko konpromezu fiskalaren inguruan dugun konfiantzagatik eta teknikoarekin adostuta planteatu direla horrela foru funtseko sarrerak, baina ahaztu zaio esatea aplikatzen diren neurri guztietan lehenengo errudunak etxean dituztela, hau da Jaurlaritzak adierazi duela pasa den asteetan zein izan behar den bere jarrera, aipatu duzuen funtzioarekiko bakarrik ez baizik eta aipatu diren partida gehienetarako, eta ez du aitzakia gisa esan 1.200.000,00 gutxiago ditugula, zeren eta guk ere zuek izan zenuen baino askoz diru gutxiagoarekin kudeatzen ari gara esku artean daukaguna. “Control exhaustivo del presupuesto” ez dakit nondik hasi, inprobisazioa aipatzen duzunean, ni oso inprobisatzailea naiz eta asko gustatzen zait, baina gaur informazio eta dokumentazio gehiagiarekin etorri naiz eta ez dakit nondik hasi, eta aurrekontuaren kontrola hasi beharko litzateke norberaren burutik eta igual egin beharko genuke gogoeta, baino egingo dugu datozen asteetan zein izan den orain arteko “control exhaustivo” hori, ea benetan herritarrei azaldu zaizkien gastu eta partidak benetakoak diren ala ez, Majoritaz hitz egiten ari da; jakin beharko genuke ea aipatzen duenean “control exhaustivo del presupuesto”, eta esaten

duenean hainbat kultur ekintza ez direla jasotzen aurrekontuetan, Nikolas Lekuonaren urteurrena,....., 1.512ko partida kendu dela, lasai egoteko Nikolas Lekuonarena ospatuko da Fray Andres de Urdenateran ospatu zeneko baino diru gutxiagorekin, pasa den urtean 1512. ospatu genuen bezala martxoaren 18an, milaka lagun herrian dantzan jarritz herritarrek antolatuta oso diru gutxiarekin, dedikatzen garelako besteak beste dauzkagun baliabideak erabiltzen, eta baliabide horiek dira “debemos gobernar para toda la ciudadanía”, zeren eta hemen dago bat eserita, eta zu Santamaria jauna zara horietako bat duela bi urte esan zuena “ellos irán todos a votar, todo depende de nosotros”, eta ez zenidan argitu orduan eta gaur ezta ere nortzuk diren “ellos” eta nortzuk diren “nosotros”, gu hemen gaude herritarrentzat gobernatzeko, ez zaizue gustatzen dugun gobernatzeko era, eta litekeena da ez daramagulado enpoltronatzeko, zuek daramatzazuen bezainbeste urte, ez edukitzea zuek daukazuen tik eta zuek dituzuen kudeaketarako gaitasun guztiak eta era, baino baita zuen kudeaketari esker gaude gauden lekuan. Atez ate, atezate, behin eta berriro, iruditzen zait oso garbi jartzen duela atez aterako 10.000,00 euro destinatzen direla, eta dagokionean hitz egingo da zertarako, ez da inongo komunikazio saila kontratatu behar atez atearen inguruan ezer egiteko, gainera aipatu du gauza bat zuzena ez dena; ez da esan partehartzearik egingo ez denik komunikazioa egiteagatik, esan duguna da 2012. urtean delegazio horren diruaren gehiengoa partehartze alorrerako destinatu zela, nahi geniolako erakutsi herriari partehartzearen bitartez lortu daitezkeela gauza asko, aurten lortu diren bezala herritarrek erabakitzea zer gauza egin nahi dituzten eta zer ez, zertan gastatu nahi dituen diruak eta zertan ez. Partehartzea egiten jarraituko da baina Udal honetan behar da plano teknikoan komunikazio zerbitzua kontratatzea. Mila gauza aipatu ahal nituzke, “presupuestos del puerta a puerta”, hemen esaten denean zuek oraindik dokumentazioa paper formatoan eskatzen duzue.

Balorazioa aipatu duzunean, nik datozen egunetan eta bihurtik aurrera, jakin nahi nuke zure ahotik balorazioaren jatorria non dagoen, balorazioaren helburua zein zen, eta egin zuenak zergatik eta nola egin zuen, zeren eta saiatu gara dokumentazioa aurkitzen, baina dokumentazio osoa ez dago, hainbat gairena ez dago, eta zuekin lan egindako tekniko berdinek ere, ez dakite arrazoitzen dokumentazioa non dagoen, eta dagoena ere ez dago osorik. Esan nahi nizuke Santamaria jauna kontsentsuetarako ez dagoela kontsentsu ezaren asmorik baldin eta zure eskaera oraingo plenoraino ekarri badugu, gure asmoa zen nahi baduzu sinplea eta infantila iaz martxoan onartu baziren aurrekontuak, aurten otsailean onartzea, ez dugu lortu utzi ez diguzuelako, hilabete eta piko izan duzue proposamenak helarazteko, eta aipatu duzunak aipatzeko ez zen atzerapenik behar, zeren eta aurkeztu dituzuenak aurkezteko kontuhartzailearekin batera egon ginenetik abiatuta helarazi ahal zenizkiguten. Zuen jarrera hori da “gualtrapa” koadrila bat garela esatea, ez dakigula kudeatzen, hori dena egin bazenute astebete lehenago, Dubreuil jaunak egin duen bezala, agian beste era batera erantzungo genizuen.

Esango nizueke zintzoak izateko zuen buruekin, konturatzeko beti ezin dela agintean eta gobernuan egon, ez pentsatzeko etxe hau zuek zerbitzatzeko dagoela baizik eta denok gaudela etxe honetatik herritarrak zerbitzatzeko, zuei bozka eman dizuenak, guri eman digutenak, eta inori eman ez dienak, Ordizian ia 10.000 biztanle gaude, eta guztientzat gobernatu behar dugu, eta hurrengorako urtebete geratzen denez, gutxienez eskatzea alde zuzenetik ezagututa duzuen zailtasuna horrelako edo antzeko alegatoa aurkezteko, saiatuko garela lehentxeago helarazten, hilabete pare bat izango da, edo berdin hilabete pare bat emanda azken bi urteetan egindako gauza bera egingo duzu, hona etorri, nahi duzuen kontatu, gure lana desprestigiatu, eta inongo proposamenik ez aurkeztu.

## Dubreuil jn:

### Zuzenketa

ORDIZIAKO UDALEKO UDAL TALDE SOZIALISTAK AURREKONTU PROIEKTUARI AURKEZTUTAKO OSOKO ENMENDAKINA.

OSOKO ZUZENKETA aurkeztu diogu 2013ko aurrekontu-proiektuari, gure iritziz dokumentu horrekin ez zaiolako aurre egiten Ordiziak gaur egun bizi dugun egoeran dituen arazo errealei.

Aurrekontu honetan, beste behin ere ordiziarrek ateratzen dira galtzaile, besteak beste diru-sarreraren kapituluan ateratzen delako tasa, zerga eta prezio publikoen igoera. Guk jada horren kontra egin genuen aurreko urteko urriko osoko bilkuran gaia aztertu zenean.

Aurrekontu horrek ez du krisi ekonomikoari aurre egiteko eta plangintza baten barruan jasotako jarraibide adosturik.

Gure herrian segurtasun-maila igotzen lagunduko duten neurriak jasotzen ez dituen aurrekontua da. Ordiziar askoren aurka landutako aurrekontua da. Kontuan hartu behar dugu ordiziar askok, besteak beste, atez atekoaren aurka azaldu zirela.

Osoko zuzenketa honekin, gure ikuspuntuaren arabera, salatu nahi dugu egun bizi dugun egoera ekonomiko zail hauetan ordiziarren egoera islatzen ez duten eta egoera horri aurre egiten ez dioten zenbait aurrekontu-partidak egotea, eta gure herriaren garapenerako gure iritziz funtsezkoak ez diren partidetan gastu arruntari eustea: besteak beste, komunikazio- eta partaidetza-zinegotzi bat liberatzea, eta 'komunikazio', 'protokolo', 'Udalbiltza', eta beste hainbatetarako partidak areagotzea.

2013. hau ere (beharbada 2014a ere bai) gogorra eta korapilatsua izango da ekonomiari dagokionez. Baina ez dugu, arestian aipatu bezala, aurrekontu-proiektuan gure herrian krisiari aurre egiteko politika planifikaturik, are gutxiago adosturik. Halaber, ez dugu ahaleginik ikusten gizarte-politikan Ordizian okerren dauden herritarrei zuzendutako laguntza- eta sostengu-programei eusteko eta horiek areagotzeko.

Bestalde, gure iritziz aurrekontu hori nolabaiteko 'zuhurtziagabekeriaz' landu da, are 'zorroztasun ezaz' ere zenbait partidatan.

Berriro ere herritarrak zigortzen dituen aurrekontua

Aurkeztutako aurrekontuan udal-zergen presioa ikus daiteke. laz gertatu bezala.

PSE-EEK duela hainbat hilabete arbuiatu zuen igoera. Dagoeneko aski kalteturik dauden etxeko ekonomiak are gehiago kaltetuko dituen igoera.

Horrenbestez, koherentziaz, EZIN ditugu aurrekontu horiek onartu, une honetan aurrekontuetan funtsezkoa den arlo batean gure pentsamoldearekin bat ez datorren kontua biltzen duelako; alegia, udal-tasetatik, -zergetatik eta -prezioetatik datozen 'sarrerak'.

Aurrekontu horrek ez du krisi ekonomikoari aurre egiteko eta plangintza baten barruan jasotako jarraibide adosturik

Enplegua bultzatzeko neurriak jasotzen ditu. Ez dago zalantzarik. Aldi baterako 10 kontratazio, seina hilabetekoak. Udalak kontraturik. Ez da berri txarra. Baina pentsatzen dugu, beharrezkoak al dira udalarentzat?, ez ote da beharrezkoagoa sostengu ekonomiko eta finantzario hori enpresetan, dendetan eta bestelakoetan kontratazioa bultzatzeko eta suspertzeko? Egokiagoa litzateke diru hori lanaldi erdiko kontratazioetarako banatzea? Edo, enplegua hobeto suspertuko duten, edo ekintzailea lagunduko duten programetan erabiltzea?

Neurri horiekin gazte-enplegua, edo iraupen luzeko langabetuena, edo 45 urtez gorako pertsonena, edo... bultzatzen da?

Galdera horiek eta beste hainbat egin dizkiogu gure buruari, eta egin behar genituzkeen udalerrian krisiari aurre egiteko plana eguneratzeko zuek oraindik deitu ez duzuen foro horretan.

Aurrekontu horretan neurriak nola aurkeztu dituzuen ikusita, ez gara horren partaide sentitzen.

Bestalde, desberdintasunak, txirotasuna eta aberastasunaren banaketaren desoreka areagotu direla ikusita, iaz aipatu genuen erakundeek eta, bistan denez, udal honek elkertasuneko, gizarte-justiziako irizpidea ezarri behar zutela. Horixe litzateke, gure iritziz, udalaren jardura publikoaren laugarren irizpidea, edo laugarren 'zutabea'.

Eta arlo horretan ere, udala hankamotz. Izan ere, orain arte zuek esandakoaren arabera, eta zuzen nazazue errealitateari estu lotzen ez banatzaio, 'dagoenari eustea' da kontua. Errealitateak erakusten digu ez dagoela ezer zeruertzean.

Hauxe litzateke arrazoibidea: "Ari duenarekin, nahikoa egiten dugu daukagunari eusten". Horixe da udalaren gizarte-politikaren azpian dagoen arrazoibidea.

Bada, Ordiziako PSE-EEren iritziz Ez du zertan hola izan. Areago, Ez du horrela izan behar.

Gizarte-babeserako gure sistemak inork bezainbat hartu behar du kontuan errealitatea, egoera. Ez dago zalantzarik. Baina batez ere, eta bereziki, egoera horri aurre egin behar dio.

Eta errealitate horrek gero eta jende gehiago hurbiltzen badu gizarte-bazterkeriara eta txirotasunera. Sistema egokitu egin behar dugu premia berri horiei erantzuna emateko. Egokitzapen horrek, lehenengo eta behin, eskuragarri ditugun baliabideak berrantolatu behar ditu, baina, halaber, gizarte-ekintza eraginkorra, batez ere, eta gero eta eragimen handiagokoa posible egingo duten tresna berriak inplementatu behar ditu. Alegia, batez ere egin beharrekoa egingo duen gizarte-ekintza. Gero eta

eragimen handiagokoa izango dena, bai, baina batez ere, bere helburuak beteko dituen. Izan ere, zertarako nahi dugu bere helburuak beteko ez dituen gizarte-politika?.

Garestiagoa edo merkeagoa izan daiteke, eragimen handiko edo ez horrenbestekoa (gogor landu beharreko arloa dugu hori, zalantzarik gabe), baina batez ere, eraginkorra behar du izan; alegia, lortu asmo duguna lor dezala. Bere helburua bete dezala.

Eta gaur, udalaren gizarte-politika honek EZ ditu gaur-gaurkoz bere helburuak betetzen. Gaur egun jende askok ez du bere arazoei eta premiei erantzuneko dien politika egokirik ikusten.

Gaur, etxez etxeko laguntza publikoa berrorientatu beharra dugu. Zenbait pertsonarentzat babespeko ostatu emateak beren premietara egokitutako zerbitzua litzateke... Eta, hala ere, ez dugu urratsik eman programa horiek aztertzen eta horien inguruko plangintza egiten.

Zer esan egoitzaz? Mahai gainean Aldundiak eskumenak aldatzeko egindako proposamena daukagu. Baina, kontua da udalak aurten egingo duen ekarpen-aurreikuspenak gora egingo duela.

Gaur, garapenaren afekzioari eta 2008ko Gizarte Zerbitzuen Legearen aplikazioari buruz nahitaez egin beharreko hausnarketa hutsaren hurrena da gure udalerrian.

Gure iritziz, ahalegin handiagoa egin behar da gizarteratze-politiketan eta gizarte bazterkeriari aurrea hartzeko politiketan. Gizarte-hezkuntzako esku-hartze arlo osoa planifikatu behar dugu, kontuan hartuta sakon landutako udal-eskumena dela. Ahalegin handiagoa egin behar dugu kontrolaren eta ikuskapenaren arloetan. Eta ahalegin hori, ahalegin horiek, ez dira aurrekontuan antzematen.

Aitzitik, departamentuko langileei lan gehiago ematen diegu droga-mendekotasunari aurrea hartzeko desagertutako arlotik datozen programekin, langile horiei lan pixka bat gehiago ematen diegu langile horietako baten lanaldiaren zati handi bat Egoitzarako jarrita, eta ez gara gauza errealtateari aurre egingo dioten neurri, proiektu nahiz tresna berrietan aurrerapausoak emateko: izan ere, errealtatea da gero eta jende gehiago dagoela gizarte-bazterkeria pairatzen edo pairatzeko arriskuan.

Orain, udalaren gizarte-zerbitzuaren departamentuan ditugu:

- Gizarte-langile erdi bat gutxiago (kontuan izanda GL baten ia lanaldi erdia Egoitzarako jarrita dagoela).
- Lan-karga handiagoa gainerakoentzat, eta horrek kalitatean izan dezake eragina. Izan ere, droga-mendekotasunari aurrea hartzeko teknikariak egiten zuen lana gizarte-langileek betetzen dute orain, baita egoitzan diharduen gizarte-langileak lanaldi ia erdi horretan betetzerik ez duena ere.
- Ordu gutxiago kale-heziketarako; aurreko urteetatik dator gaia, aurrekontua 60.000 €-ra jaitea erabaki zutenetik, horrek hezitzaileen lanaldia murriztea ekarri baitzuen.
- Diru gutxiago prebentzio-ekintzetarako; 2012an udal-jardueretarako bideratu ziren 9.300 € ez dira aurrekontu honetan ageri, ezta prebentzio-arloan lan egiten duten eskolei eta GKEei bideratutako 3.000 €-ko diru-laguntza ere. Kasurik onenean 5.000 €-ko igoera ikus dezakegu gizarte-heziketarako, nahiz eta ez dakigun oso ondo zertan erabiliko den; antza denez, azken

momentuan puntu hori aldatu dute, eta 5.000 € gehiago bideratu dute gizarte-heziketara, oraindik ere zertarako izango den ez dakigun arren. Nolanahi ere, aurrekontuan 13.000 €-ko murrizketa ikus dezakegu prebentzioaren arloan.

- Diru gutxiago, halaber, droga-mendekotasuna duten pertsoneri laguntzeko, aurrekontuan ez baita jaso tratamenduan dauden pertsonen garraiorako lehen zeuden 1.000 €-ko laguntza. Eta kontua da ez dela diru asko, baina urtero dugu ordiziarren bat, edo bi edo hiru, oso mesedegarria zaien diru-laguntza horren premian.
- Departamentua, epe motzera, eta aurreikuspenak betetzen badira, aldundiaren eta udalaren arteko eskumen aldaketa-prozesuaren ondorioetara, eta, gizarte-zerbitzuen legearen barruan, udalaren eskumena izango den zerbitzu-zorroaren garapenera egokitu beharko da. Horrek guztiak, besteak beste, eskatuko du etxez etxeko laguntza-zerbitzuari bultzada handia ematea, mendekotasunari buruzko legetik eratorritako prestazio ekonomikoen jarraipena, kontrola eta ikuskerak egiteko lan-arlo berri bat, eta lan-programa edo -arlo berriak osatzea, kontuan hartuta horrek guztiak ekarriko duen lana.

Laburbilduz, ez gatoz bat aurrekontuak jasotzen duen gizarte-zerbitzuen departamentuaren 'berrantolaketa' horrekin gure iritziz ez delako egokia, eta ez dutelako inor kontuan hartu hori gauzatzeko. Ez, behintzat, gu.

Bestalde, iaz esan genuen lehenik eta behin zorrotz landu behar genuela udalaren gastu publikoa. Bada, Bilduk 2013rako aurkeztu digun aurrekontu honetan, ez du aintzat hartu irizpide hori. Aurrekontua ez da batera zorrotza; izan ere, hainbat gastu-partida argi eta garbi utz baitaiteke alde batera, 'ari duenarekin'.

Alde batera utz daitekeen gastuetako bat Majori kiroldegirako zuzendari bat kontratatzea da. Gaur egun badugu langile bat, kirol-teknikari bat, lanaldi erdiarekin, zuzendaritza-eginkizunak bere gain hartzeko guztiz gai dena. Neurri horrekin aurrezteaz gain, helburuak beteko genituzke, inolako zalantzarik gabe. Lan hori etxean nork egingo duen baldin badugu, zertarako langile gehiago?

Eta 'zorroztasunaz' ari bagara, ez genuke igoko 'protokoloen' partida 'gobernu-organismoetan' (+ 5.000 €), ezta 'komunikazioarena' ere 'Partaidetza eta komunikazioa' izeneko atalean (+ 21.000 €). Ez genuke mantenduko, jakina, 'Udalbiltzarena' (10.000 €). Eta horrekin guztiarekin 35.000 euro dira.

Halaber, ez dugu ulertzen aurrekontuan berdintasunaren atalean egiten duen 'ahalegin' hori. Zertarako kontratatu beste teknikari bat arlo horretan profesional bat edukita? Aurrekontuan ikus dezakegunez, orain artekoa kudeatzeko?

Aurrekontu honek, iazkoarekin alderatuta, 2.000 €-ko igoera jasotzen du sentsibilizazio-jardueretarako (zalantza egiten dugu 'Elkarkidetzaren' ote den 'sentsibilizaziorako jardueraren').

Nolanahi ere, jarduera-bolumen horrek justifikatzen al du beste berdintasun-teknikari bat kontratatzea? Argitu ez zaizkigun zalantzak dira, eta zalantzarik gabe zalantza mamitsuak.

Baina, jarrai dezagun gure argudioekin osoko zuzenketa hau funtsatzeko. Izan ere, aurrekontu hau aurretiaz esandakoez gain,



Ordiziar askoren aurka landutako aurrekontua da. Kontuan hartu behar dugu ordiziar askok, besteak beste, atez atekoaren aurka azaldu zirela

Aurrekontu honek, lehenengoz, ordiziarren gehiengo zabal batek errefusatu duen sistema bat finantzatuko du. Eta horretarako, 10.000 € jarriko ditu. Horixe da aurrekontu hau ez onartzeko beste arrazoietakoa bat. Gainera...

Ez du gure eskakizunik jasotzen, bakar bat ere ez

Hainbat proposamen egin ditugu, baina ez dituzte aintzat hartu... Eta esan beharra dugu, horietako batzuk hilabeteak daramatzatela erantzunik gabe.

Krisiaren aurkako tokiko plana eguneratzea. Osoko bilkuran onartua. Fitsik ez. Esan behar dugu behin eta berriro aipatu dugula eguneratze hori ezinbestekoa dela, eta zalantzarik gabe, elementu garrantzitsua izango zatekeen aurrekontu hauek lantzerakoan.

Edo, segurtasunaren eta elkarbizitzaren aldeko mahaia deitzea. Gauza bera. Bilduren, EAJren eta PSE-EEren arteko akordioaren bidez hartutako konpromisoarekin, erabilgarria zatekeen Ordizian segurtasun-maila igotzeko interesgarriak liratekeen zenbait neurri jasotzeko aurrekontu honetan. Fitsik ez.

Halaber, ez dute jaso guk egindako beste hainbat proposamen (ez ditut aipatzen):

1. EUDEL, orain artekoan tresna baliagarria... eta 'merkea'.
2. Zergak ordaintzeko laguntzak; iaz ez zuten % 100eko 'publizitaterik ' izan. Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten ia denek lukete programa horretarako sarrera edo eskubidea, eta laguntza horiek jaso lezakete. Horrek suposatuko lukeen kopurua kontuan hartuta, programaren inguruko hausnarketa egitea ezinbestekotzat jotzen dugu.
3. Familiei bideratutako laguntza. Gure iritziz, partida honetan sar litezke etxetik kaleratzeko prozesuan dauden pertsonen/familien eduki litzaketan arazo ekonomiko/finantzarioei aurre egiteko ezar litezkeen laguntzak (+- 10.000 €). Halaber, gure asmoa da gizarte-bazterkeria pairatzeko arriskuari aurre hartzeko programa bat sustatzea, bakarrik bizi diren 80 urtetik gorako pertsonen zuzenduta (+- 10.000 €).
4. Enpleguaren sustapena hainbat dimentsiotan ikusten dugu. Horietako bi udalaren kontratazioen ingurukoak dira (zuzeneko kontratazioa, 48.000 €, 3 kontratazio), eta bestea tokiko enpresek kontratatzea bultzatzekoa (aurkeztu dugun proposamenarekin 20 lanpostu-inguru bultzatze genitzake enpresetan).
5. Gure iritziz, nolabait ere eraikuntzaren sektorea 'sustatzen' jarraitu beharko genuke, sektorean enpleguari eusten jarraitze aldera. Horrez gain, laguntza horiek jasotzen dituztenek ezinbesteko baldintza lukete zaharberitutako etxebizitza 'alokairu sozialean' jartzea. Programa landu beharra dago. Alokairu sozialeko etxebizitza merkaturatzeko duten 'asmoa' ezagutzen dugu, baina ez dugu beren helburua ezagutzen, nola egingo den, nola arautuko den, eta abar. Ados gaude, gai horren inguruan, teknikari bat kontratatzearekin, programa ezartzeko, baina ez ditugu programa, ideiak, helburuak ezagutzen.
6. Hortaz, irisgarritasuna hobetzeko partida areagotzea proposatzen dugu. Eraikuntza-sektorean enpleguari 'eusteko' beste neurri bat da, eta, horretaz gain, eraikinen eta horien bide publikoarekiko

irisgarritasunean hobetzen saiatzea. Neurri horien inguruko plangintza egiteko azterlanei heldu behar diegula uste dugu. PSE-EErentzat garrantzitsua izaten jarraitzen du Ordizian irisgarritasuna hobetzeak.

7. Halaber, 5. edukiontzia bultzada emateko kanpaina bat proposatzen dugu. Ez dugu ezer berririk esan. Neurri horrekiko ezezkoa berririk ez den neurri berean.
8. "Alkateen itunerantz gerturatuz" programarekin bat egitea (2013). Erreferentzizko igorpenen inbertarioa egitea (2013). Energia jasangarrirako ekintza plan bat egitea(92013-2014????).
9. 471.01 partida areagotzea: 600 €-tik 16.000 €-ra, sektore berrietan denda eta enpresa berriei sostengua emateko... (1.000 € itzuli beharrik gabeko diru-laguntza jarduera/sektore berrian denda zabaltzeagatik -10 aurreikuspena-, eta 3.000 € Goiekiko lehiaketatik sortu eta Ordizian kokatuko diren enpresentzat -2 aurreikuspena-).
10. Amianto-elementuak dauden instalazioen eta eraikinen inguruko azterketa, eta amianto hori kentzeko laguntzak.
11. Segurtasunaren arloan aurrerapausoak emateko, dendetan, ostalaritzako establezimenduetan, komunitateen garajeetan eta bestelakoetan segurtasun-neurriak hartzeko (alarmak, itxiturak, eta abar) diru-laguntzen programa bat bultzatzea proposatzen dugu.
12. Gazteen lokalak osoko bilkura honetan planteatzen den ordenantza berrira egokitzeko diru-laguntzen programa bat. Horren aldeko bozka emango dugu soilik bi ekintza horiek (ordenantza eta babes-neurriak) elkarrekin badoaz.

Bada, ez dute gure ekarpenetatik bakar bat ere aintzat hartu. Ez orain arte, behintzat. Eta horixe da aurrekontu honi osoko zuzenketa aurkezteko beste arrazoietakoa bat.

Gure iritziz, gainera, badu nolabaiteko 'zuhurtzarik eza'; izan ere, 'sarreraren' atalean udalen finantzaketarako foru-funtsaren % 100 aurreikusten du. Garai hauek ez dira onenak diru-bilketarako. Aurreikuspenek diote 2013<sup>a</sup> urte zaila izango dela, eta 2012. baino okerragoa agian. Orain arte azkeneko urteetan foru funtsetik dirua itzuli behar izan dugu. Zuhurragoa izango litzateke itzuli daitekeen kopuru zehatz bat aurreikustea, orain arte egiten zen moduan.

Gure iritziz, halaber, aurrekontuak, neurri batean, "zorrotasuna" falta du zenbait partidatan. Esate baterako, 'Berdintasunerako partidan'. Teknikari bat kontratatzea aurreikusten dute, eta Aldundiak % 100ean diruz lagundutako programa bat dela esan digute. Eta hara non diru-laguntza hori ez den 'sarrerak' atalean jaso. Edo, partida horretan bertan, Elkarkidetzarako bideratuko den 1.800 €, 'sentsibilizazio ekintzetarako'. Edo egoitzaren aurrekontua. Azken zirriborroan gora egin du; pentsatzen dugu psikologoaren eta gizarte-langilearen kostua kontuan hartzeko. Eta, hala ere, gizarte-langileari dagokionez, ez du islarik, ez du gutxitze paralelorik gizarte-ongizateko langileen partidan. Laburbilduz, eta bukatze aldera, aurrekontu honek:

1. Berriro ere herritarrak zigortzen ditu, 2013rako zuek onartutakoaren arabera, tasak, zergak eta prezio publikoak igoz.
2. Krisi ekonomikoari aurre egiteko jarraibide adosturik eta planifikaturik ez duen aurrekontua (orain arte ez baita krisiaren aurkako tokiko plana eguneratzeko akordioa bete).

3. Aurrekontuak ez du gure herrian segurtasun-maila areagotzen lagunduko duten neurriak jasotzen (ezin izan dugu horren inguruko hausnarketarik egin, ez baituzue bete segurtasunerako eta bizikidetzarako mahaia deitzeko zuek eta EAJk eta PSE-EEK hitzartutako).
4. Ordiziar askoren aurka egindako aurrekontua da. Kontuan hartu behar dugu ordiziar askok, besteak beste, atez atekoaren aurka azaldu zirela.
5. Aurrekontuan jasotako hainbat partidak ez dute islatzen eta ez diote aurre egiten ordiziarren egoera errealari, une honetan bizi dugun egoera zail honetan. Areago, gure ikuspuntutik ordiziarren arazo nagusia den krisiari aurre egiteko udal-politika bat garatzeko bitartekoak kentzen dituzte.
6. Aurrekontuak, halaber, ez du islatzen bizi dugun garai honekin bat datorren gizarte-politikarik.
7. Maila batean 'zuhurtziarik' ez duen aurrekontua da, eta nolabaiteko 'zorrotzasun eza' du. Horrez gain, ez du guk egindako proposamenik, bakar bat ere, jasotzen.

Horregatik guztiagatik, osoko zuzenketa aurkeztu dugu, eta 2013ko aurrekontu-proiektua atzera bueltatzea eskatzen dugu.

#### Alkate jn:

Dubreuil jaunari esan dio osoko zuzenketa astelehenean jaso zuela, eta gogoeta egiten duela bi zentzutan: forma aldetik badaudela alderdi sozialistak egindako proposamenetan onartzekoak, eztabaidatzekoak, eta garatzeko modukoak, baina hiru aste edukita forma aldetik ez zaiola iruditzen oso zuzena eta bidezkoa 4 egun lehenago Udal Osoko Bilkurara ekartzea eta orain hemen modifikazioetan sartzea, benetan interesa badago, nahiz eta beste maila batzuetan hitz egin, proposamenen batzuk onartzeko, forma aldetik beste modu batean egin behar zela, astelehenik honera nahiko lan eman du hausnartzen, eztabaidatzen eta herritarrentzat baliagarriak izan daitezkeenak beraien ikuspegitik irakurtzen eta hori honera ekartzen; eduki aldetik, zuk aipatu duzu eta berretsiko dut ziur asko iaz esandako gauza bera, aurkeztu diren hainbat gauza tratatzeko modukoak direla, iruditzen zaigu denbora gehiagorekin egin behar zela, baina zuk aipatzen dituzun formulak sarreretatik nondik jarri nondik kendu, edo gastuetatik nondik jarri, nondik kendu, proposamen horiek aurrera eramateko garbi ikuspegi politikoaren kontua dago, nabarmen partida kentze horietan daude euskararen sustapenerako erakundeei ematen zaizkien dirulaguntzak: hitza, goierri telebista, Udalbiltza, komunikazioari dagozkionak nahiz eta gero zure proposamenetan azaldu zerga ordaintzeko ez dela behar adina komunikazio egiten, azken hau ironia erabiliz esaten duela aitortu du, ironia erabiltzea bion gustokoa delako ; ongizate saila indartzea esaten du drogomenpekotasunaren ikuspegitik, hau zentzu berdinean erantzuten diet Santamaria eta Dubreuil jaunei, iruditzen zaio prudenteena dela horrelako gai bat aztertzen denean, eta badakigu zuk azterketa eginda duzula eta zure iritzia ere ezagutzen dugu, drogomenpekotasun teknikariaren figura baliagarria da baliagarria den arte, besteak beste zerbitzuak, delegazioak, teknikariek horrela ikusten duten arte, eskualde mailako teknikaria daukagu, eta ikusten badugu gainerako eskualdeko herriek programaren amaiera irakurri dutela, ez zaio zentzurik ikusten bere horretan mantentzeari.

Hutsak edo hutsuneak aitortzeko ez dugu inongo arazorik, eta inprobisazioa baldin bada inprobisazioa izan da berdintasun teknikariaren Diputazioaren kopurua gaur txertatzea, eta baita Gobernu Organoko

gastua jaistea kuestio kontzeptual batengatik eta gero igo egin behar izan dela ez duelako ematen, horrelako gauzak onartzeko ez dago inongo eragozpenik, beste gauza bat da adostasunetara iristea eta badakizu hori beti egin dela zurekin eta egiten jarraituko dela; zuk planteatzen dituzun murrizketetan ulertzen dut gehienbat arrazoi politikoak daudela, Udalbiltza, badira urtero errepikatzen dituzunak langileentzako maileguak, eta iaz ere esplikatu zela eta gaur ez dela horretan luzatzeko. Enplegu sustapenarenaren inguruan kurioa iruditzen zaio Dubreuil jaunaren jarrera, zeren eta oso zaila da aurrekontuan 160.000,00 euro enplegua sustatzeko aurreikusi, eta planteamendu horri alderdi sozialistak ezetza ematea; zuk egiten duzun proposamen numerikoan ez digu numeroak ematen, zeren eta ekarri den proposamena ondo kontratatuta dago teknikariekin, eta iazko enplegu programaren esperientzian, ez da gai hau inprobisatuta ekarri. Zuk beti galdetu duzu alderdi sozialista agintean egon zenean eskualdeko enplegu programak zer ekarriko duen herria, gaur egun badakigu Goieritik lantzen ari den enplegu plan horrek ondare intangible gaien 9 edo 10 lanpostu kontratatzeke aukera ekarriko duela eskualdera.

Hitz egin dugu Goiekirekin aukera horietan sartu ahal izateko, ikusiko dugu ea proposatzen dugun kopuruarekin eta lanbidek aurreikusten dituen laguntzekin sartzerik izango den ala ez, edo agian planteatuko dugu destinatatu den partida horretatik abiatuta laguntzarik ez badago ere, dauden proposamenetako bat aldatu, eta programa horretara atxikitzea. Zuk planteatu duzu 48.000 euro hiru peoi kontratatzeke erabiltzea, baina zuk teknikariekin hitz egin ondoren, esaten digute aparteko lanak egiteko (kontuan izan behar da ezin direla Udalaren ohiko lanak egin), eta lan horiek egiteko peoiak baino gehiago ofizialak behar direla, eta ofizial bakoitzaren kostua 20.000,00 eurokoa da, eta zuk egiten duzun planteamendua, nahiz eta fede txarrez ez egin, iruditzen zait zuk egindakoa baino hausnarketa gutxiagorekin eginda dagoela, zeren eta planteatzen duzu 48.000,00 euro zuzenean 3 kontratazio egiteko eta 102.000,00 enpresek langabetuen kontratazioa sustatzeko, hori errealitatean nola egiten da?, jarraian, ikusten dituen hainbat zailtasun aipatu ditu Dubreuil jaunaren planteamendua aurrera eramateko, eta oraindik zailago ikusten du bizi dugun krisi egoera kontuan izanda, esan du planteamendu hori zailtasunez betetakoa dela eta horregatik planteamendu zintzoagoa egin dutela, badakigu honelako programa batek ez duela Ordiziako langabeziaren arazoa konponduko, hori garbi dago, eta askotan egiten denean arrainen eta kanaberaren azterketa, eta bizirik iraute arriskuan denean beharbada arrainak kanaberak baino inportantagoak izan daitezke, kanaberak beste zentzu batean planteatzen dituzte, eta aipatu du etxebizitza sozialen programa, zein izan den orain arteko bidea, eta zein izango den aurrerantzean eman beharreko pausoak horri eusteko, ziur asko enplegu programa honi atxikitu ahal zaizkion 10 langileek oso esker onez hartuko dute ez Bildurena baizik eta Udalarena den enplegu programa hau, noski Udalak egingo duen ekarpen propioarekin. Baina baita ere laguntzak jaso ditzaketen elkarteekin, Santamaria jaunak adierazi duen bezala laguntzak ez dira bakarrik ekonomikoak, Goieki batek aportatu dezake beste praktikotasun bat gauzak sortzerakoan, lana sortzerakoan, eta abar. Zentratu gara 10 lanpostutan, baina ez da ezer esan sortu nahi ditugun negozio berriei buruz, baita dago enplegu sustapenean negozio berriak sortzeko proposamena, gai honi buruz Tolosarekin hitz egin da, herrian dagoen merkatari-teknikariarekin hitz egiteaz aparte ikertu da zer dagoen herrian, zer motako enpresa sortu daitezkeen, Goiekirekin hitz egin dugu ea inkubategiaren bitartez nola gauzatzen den, ez da inprobisatutako zerbait, dokumentazio asko daukagu, eta joango gara datozen egunetan gai hauek bideratzen. Partehartzea eta komunikazioa, horren inguruan ez du eztabaida handirik egingo, iaz izan zen gobernu talde honen lehenengo urte osoa, eta partehartze gaiari dagokionez eskuartean zegoen kontzeptu berri bat txertatzeko asmoa, kontzeptu berri hori izan da partehartzea indartzea, ez da esan nahi lehen ez zegoenik, beste formato batean ematea zen helburu,

eta adibide bezala aurrekontuarekin 100.000,00 euroko inbertsioekin egin dena aipatu du. Azoka bereziaren inguruan agian egin beharko litzateke hausnarketa, guk ikusi dugu azoka berezia garestia dela urtero egiteko, oso gertu daukagun. Segurak oso itxura ona duen erdi aroko azoka egiten duela, eredu bat dena, eta horretan bat datorrela Santamaria jaunarekin, zerbaitetan ados badago, hitz egin beharko litzatekeela, guk planteatzen dugun moduan bi urtez behin egin behar bada nola uztartu Segurarekin, baina azoka hau bi urtez behin egitea aurrekontuan berme bat ekartzen duela eta azoketan berrinbertitu dela, 1512. urtea zen urteurrena, eta iaiztik abiatuta aurten azokan erostera doazenentzat bonoak atera dira, hau da erosketak inzentibatzeke asteazkeneko azoketan, eta partida berezi hori horretarako aurreikusi da, aurrekontuaren irakurketan ahaztu edo ikusi ez dena, guretzat garbi dago asteazkenetako azokak indartu behar direla, eta aurreikusi den partida hori horretarako da. Partida jakinetan, Eudel aipatu duzu, horren inguruan esan dizuegu zein den gure asmoa, EUDELen egoteko ez geneukan inongo arazorik, baldin eta balego interesa EUDELen inguruan eztabaidatzeko eta EUDELeke betetzen duen papera aztertzeke eta horren inguruan adostasunetara iristeko, gaur arte ez da egon, hamaika aldiz bildu gara eta ez da egon, baina esaten dut hemen idatzita geratzen delako, ez duela inongo arazorik gai aztertzeke eta 2013. urtean zehar partida berrartzeko eta habilitatzeko, ikusten bada benetan denon interesak defendatzeko dela eta benetan ikusten bada aurrera egin dela, eta uste duela adostasunetara iritsiko dela, adostasun horietara eta orduan ikusiko da nola gauzatzen den. Aipatu zenituen zergak ordaintzeke dirulaguntzak, RGIak, eta abar, ez dut uste fede txarreko kontua denik, baina datu errealak emango dizkizut, batzuk ezagutzen dituzunak eta beste batzuk ezagutzeko, zuk aipatzen duzunean publizitate gehiago egitea eta RGIa kobratzen dutenengan zuzentzea eta adostasunetara iristea, 40.000,00 euro izan beharrean 45.000,00 euro dira, hor ere badago kanbera eta arrainen kontzeptua ere, iaz 24 eta 25 eskaera izan ziren dirulaguntzak jasotzeke, eta eskaera egin duen bakoitzari 280,00 euro eman zaizkio, zure proposamena laguntza horiek RGIa kobratzen dutenei heltzea suposatuko luke. Ordizian kobratzen duten 160 lagunek eskatu ahal izatea, eta arrainak eta kanbera kontzeptua hartuz guk sortu behar diegu eskatzen ez dutenei beharra? , benetako beharra da daukatenak edo emango diegu ahalmen bat behar berri bat sortzeke eta diru hori eska dezaten?, teknikoan arabera hori ez da Ordizian beharrak erreklamatzeko duena, eta iruditzen zaio kontzeptualki ere ez, hobe da behar duenari eta eskatzen duenari bideratu eta beharbada diru gehiago egokitu horretara, kontzeptua zabaldu baino, desberdintasunak ez sortzeke: Familiei dirulaguntzak, jarri den partida errealtatean oinarrituta dago, eta tekninariekin hitz eginda, aipatu duzu, iaz ere aipatu zenuen, etxebizitzak errehabilitatzeko dirulaguntza partida, gauza bera esango dizut; berriz ere gogoeta hau egin nahi nizuke, gu prest geunden zure proposamenak ikusita eta gaude aztertzeke eta hainbat gauza baloratzeko, ez noski irizpide politikoengatik zuk onartzen ez dituzunak, proposamen interesgarriak denbora gehiagorekin eta beste prozedura batekin hitzartu nahi genituzkeenak, baita ere gaurko Osoko Bilkuran osoko zuzenketa kenduz gero prest gaude zure proposamen batzuk onartzeko eta gero ikusteko zer gauza begiratu ditzakegun batera, baina pena ematen diguna da puntu honetara iristea denbora eduki dugunean eta zuk gutxienez adierazi duzunean denbora horretan zerbait aurkezteke epea, erakutsi dugu 4 egunetan ematen duela denbora gutxienez erantzun batzuk emateko baina ez aurrekontuak modifikatzeko, bukatu du esanez eskertzen dizkiola egindako aportazioak.

#### Dubreuil jauna

Lehenik eta behin, barkamena eskatu du bere proposamena lau egun aurretik soilik aurkezteagatik, aztertzeke tarte nahikorik ez dagoela jakitun. Alabaina, hori hala izan zen aurrekontu-zirriborroa osoko bilkurarako gaiak aztertzeke batzordea egin baino lehentxeago banatu zitzaielako, eta ondoren,

gainera, aldaketak egin zaizkio zirriborroari. Hori dela-eta, denbora gehiago behar izan du, jasotako informazioa alderatu behar izan baitu. Bestalde, gogora ekarri du urteren batean zirriborro ia behin betikoak egon direla zintzilik formaturen batean, eta horrela denbora gehiago zegoela hausnartzeko eta negoziatzeko, proposamenak egiteko, eta abar. Aurten, ordea, ez da horrela izan.

Alkate jaunak aipagai izan dituen edukiei dagokienez, zenbait aferatan iritzi desberdina dugu betidanik afera horien esanahi politikoari erreparatuta; hortaz, garbi dago oraingoan ere ez garela adostasunera helduko, eta hori saihestezina dela. Bere proposamenei dagokienez, berriz, droga-mendekotasunari aurre-hartzearen inguruan, esate baterako, zerbitzu hori aspalditik zalantzan zegoela esan du, eta ez direla aldatzearen aurkakoak, baina erabaki bat hartzekotan, eseri eta debatitu beharko zuketela departamentua nola bideratu, dituen premiak, erronkak eta bestelakoak aztertze aldera. Irudi hori ezinbestekoa ez dela esatearen inguruan, profesionalaren irudiaz arituko da, izan ere, horrek burutzen zituen lanak departamentuko gainerako langileek hartu beharko baitituzte beren gain; horrek agerian uzten du zer kudeatu badagoela. Zergak ordaintzen laguntzeko gaiari dagokionez, gastua zehazki zenbatekoa den ez dakien arren, bere iritziz eztabaidagaia da politika proaktiborik egin behar ote den ala ez jendeak horien berri izan dezan.

Arautegian aurreikusitako laguntza-sorta egokia ote den hausnartu beharko litzateke, alabaina, arautegi hori onartuta eta egon badagoenetik, baldintzak betetzen dituztenek eskubidea dute laguntza horiek jasotzeko; bete egin behar da indarrean dagoen araudia eta herritarrei horren inguruko argibideak eman behar zaizkie. Berrito ere azpimarratu du Departamentuan hausnarketa-lan bat egin beharra dagoela, ez soilik Aldundiaren eskumenak gure esku uztearen ingurukoa, baita inklusio- eta eskusio-hitzarmen guztien eta bestelako gaien ingurukoa ere, eta horren barruan zergak ordaintzeko laguntzen gaia ere bai. Familiei bideratutako laguntzei dagokienez, gizarte-langileek aski nahierara erabiltzen duten partida izanik, kontusail hori etxetik kaleratzeko arriskuan daudenei laguntzeko osoko bilkuran hartutako erabakia betetzera bideratzea proposatu du. Enplegu-programari dagokionez, ez deritza kontusail inprobisatua denik, nahiko zehatza baita. Bere iritziz, ez dago adostua. Talde guztiek onartu zuten udalerrian krisiaren aurkako plana eguneratzea, foro horren barruan eta bitarteko guztiak baliatuz adostu behar ziren halako programak. Dendei eta kontratazioari bideratu beharreko laguntzei dagokienez, beste herrietan egiten ari direla esan du; zehazki, Eibarren. Bere iritziz, laguntza horiek beste laguntza batzuekin konbinatu behar dira eragimena areagotzeko. Ez daki aurkeztutako programa ona, txarra ala erdipurdikoa den, eta berrito ere azpimarratu du gai hori ere udalerrian krisiari aurrea hartzeko planaren barruan debatitu eta adostu beharko litzatekeela. Berdintasunerako teknikariaren kontratazioari dagokionez, berriz, oraindik ere ez dio erabilgarritasunik ikusten, ez baitu ikusten berdintasunaren inguruko gaietarako kudeaketa-gastuen aurrekontua areagotu denik. Kontratazio hori ez luke gaizki hartuko baldin eta aurrekontuan igoera hori jaso izan balitz, eta esan du berdintasun-plan berria idazteko lanei heldu behar zaien honetan logikoagoa irudituko litzaioke kontratazio hori egitea baldin eta aipatu lan horren ondorioz kontratazio hori egitea beharrezkoa dela egiaztatutako balitz. Datozen garaietan krisiaren aurkako plana eta segurtasun-mahaia sustatuko balira, ez luke arazorik batere edukiko foro horietan adostuko liratekeen ekimenei bere babesa emateko. Alabaina, hori gertatu bitartean, osoko zuzenketari eusten dio, udal-tasen eta zergen gaian, Majori kiroldetako administrazio-kontseiluaren gaian eta 5. edukiontzia gaian erakutsitako jarrerarekin koherentea izanik.

### Maiza andrea:

Esan du ez dela gehiegi luzatuko, baina ezin duela onartu Dubreuil jaunak gizarte politikaz egiten duen halako irakurketa ezkorra; izan ere, zerrendatu duen soka osoa dagoeneko lantzen ari baitira gizarte-politikatik. Motibazio-, informazio- eta bestelako kanpaina gehiagorik egin behar ote den, ez dio ezetzik, baina Ordizian denbora bat bizitzen daramaten guztiek, are iritsi berriek ere, ongi baino hobeto dakite non dauden Ordiziako gizarte-zerbitzuak. Egindako eskaera bakoitzaren egoeraren eta pertsonen egoeraren analisia eginda, eskaeren % 100i egin zaie arreta; hori argi eta garbi utzi nahi du, izan ere herriaz egindako irakurketaren arabera, badirudi herria 'hankaz gora' dagoela, orain erabateko anabasa balego bezala. Santamaria jaunari esaldi ikaragarria entzun dio; drogamendekotasuneko teknikariari eman zaion 'tratu txarra', irakurketa guztiz tremendista iruditu zaio. Jarraian esan du, terapiara doazen kilometraje-gastuak, betaurreko premiak, are ikastetxeek hala aholkatuta eskola partikularrak behar dituztenen haurren gastuak ere ordaintzen jarraitzen dugula, ez bakarrik curriculum-gaietakoak, baita bestelako batzuk ere (musika, eta abar). Egia da, bai, aldaketa garaian gaudela, Aldunditik beretik aldaketa handiak baitatoz, zerbitzu asko birkokatu behar ditugu. Lanbidek egiten duenaren eta sortzen ari den arazoen berri jakitea nahiko luke; laguntzak ematen ari gara Lanbidek oraindik ere erantzun ez dien familiei, eta berriro dio egindako eskaeren % 100ari erantzun zaiola. Horren gai erabilia den drogamendekotasunari dagokionez, esan du denek bazekitela programa hori noizbait agortuko zela, horretarako sortua baitzen. Beraiek gobernuan zeudenean erabaki zuten drogamendekotasunaren gai osoa bi bide desberdinetatik landuko zela: hezkuntza aldetik eta osasunaren aldetik. Bere iritziz, ez dio ezer laguntza jasotzen zuten ikastetxeek ezer ez esatea, eta gizartea dinamikoa dela, eta gizarte horren premien arabera egokitu eta birbideratu behar direla politikak. Hortaz, ez du onartuko langileari emandako tratuari buruz Santamaria jaunak esandakoa; izan ere, langilearekin komunikazio ezin hobea izan dugu, eta gauzak behar bezala azaldu zaizkio, areago berak ikastetxeetatik etorri den informazioa eduki du eta dauka. Santamariak esandakoa, beraz, gehiegizkoa iruditzen zaio. Ez dute sentsibilitate faltarik izan gai honen inguruan. Bukatzeko, esan du egoera horiei aurre egiteko jarraibideak, arauak, erregelak eta bestelakoak eztabaidatu eta adostu behar diren foroetan (eta gizarte-ongizateko mahaiak eta foroak dauzkagu) ez dutela inolako debaterik saihestuko akordioetara iristeko.

### Santamaria jn:

Adierazi du egin duen esposizioa egindako azterketaren ondorioa dela, eta argi dagoela beraien iritzia guztiz desberdina dela, eta azaldu diren beste proposamenak errespetagarriak diren bezala, beraiena ere errespetagarria izan behar duela. Bestalde, denboraz ez direla eman proposamenak, eta proposamenak aztertzeke denbora behar dutela afirmazioaren aurrean, bere barkamena eskatu du hori honela izan bada, baina argitu du beraiek nahiz eta hasiera batean astebeteko atzerapena eskatu, azkenik astearte artera soilik atzeratzea eskatu zutela, eta ostegunean egitea Bildu taldeak erabaki zuela; eta alkateak esan duen bezala denbora behar dutela proposamenak aztertzeke, beraiek ere denbora hori behar dutela, eta zentzu honetan gogorarazi du denbora eduki dutenean zenbait aldaketa egin direla, eta hori ez zaiola zilegi iruditzen beraiena zilegia ez dela iruditu den bezala, eta gainera epe horretan gauza berriak jarri dituztela, eta adibide bezala feriko "bonoen" gaia aipatu du, eta galdera hau egin du, pasatutako aurrekontuan agertzen da.?, Intsausti andreak erantzun dio baietz, orduan Santamaria jaunak galdetu du, baina zertan ez?, honi Intsausti andreak erantzun dio azoka sustatzeko ekintzak azoka batzordean erabakitzen direla, eta interes berezia badauka gai honetan batzorde horretan parte hartzeke; orduan Santamaria jaunak esan du ez zaiola deialdia iritsi; orduan alkateak

hartu du hitza eta esan dio konstantzia badagoela deialdi publikoak egiten direnean arazo teknikoak daudela Santamaria jaunari egiten zaizkion deialdietan, baina badakiela azoka bilerak ostiraletan egiten direla agintaldi hasieratik; orduan Santamaria jaunak argitu du gai horren espezifikazioa, Nikolas Lekuonarena bezala gaur jakin dutela. Ondoren euskara-erdara erabileraren gaiak ez duela bestelako inongo intentziorik argitu ondoren, Maiza andreari esan dio "maltrato" esan badu barkarmena eskatu behar zuela baina paperean ikusi duela "trato humano" jarrita daukala; horren aurrean Maiza andreak akklaratu dio berak esan duela "el mal trato que se le ha dado".

#### Alkate in:

Dubreuil jaunak aurkeztutako proposamenei dagokienez, adierazi du nahiz eta denbora gutxi izan aztertzeko, eta errekonozituta berak azkeneko zirriborroa denbora gutxiagoarekin jaso duela ere, benetan badagoela borondate bat gauza horien guztien gainean eztabaidatzeko eta horregatik ekarri dira erantzunak eta proposamenak, eta nahiz eta eskatuta bezala osotasuneko zuzenketa ez duela kenduko esan, aitortu dio hala ere prest daudela aurrerantzean Dubreuil jaunak aipatutako proposamenak eztabaidatzeko, eta gaur berak egindako proposamen hauek aintzat hartzea, nahiz eta zuzenketa atzera ez bota:

- 227-04 partida 11.600 eurokoa: orokorki sortu zitezkeen beharretarako aurreikusita bazegoen ere, partida horrek izen propioa izango du eta bere erabilera izango da kaleratzeen ondorioz gerta daitezkeen egoerak gainditzeko languntzak emateko.
- Beste batetik, apunte bat egiten zenuen amiantoa duten etxebizitzaren inguruan azterketa egiteko, prest gaude nola sartu hitz egiteko, baina enplegu programaren barruan kontratazio bat etxebizitzaren azterketari lotutako proposamenak egiteko aurreikusita dagoenez, prest gaude hor aztertzeko gaia.
- Ongizateari dagokionez, horiek ez dira gaur aldatuko, baina prest gaude ez balizkoetan segurtasun foroa, krisiaren foroan aztertu eta eztabaidatzeko.

Interbentzio hau amaitu ondoren, eztabaidatu da nola bozkatu puntu hau, eta idazkariari eskatu zaio bere txostena. Idazkariak aipatu du Toki Entitateen Antolakuntza eta Funtzionamendua arautzen duen 2568/1986 Erregalamentuko 97-5 artikuluan xedatzen denaren arabera "enmendakina dela puntua eztabaidatzen hasi aurretik idatziz alkateari zuzendutako proposamena", eta gainera hasieran aho batez puntu bezala sartzea bozkatu dela, hori kontuan izanda eta formalki alderdi sozialistak aurkeztutakoa bakarrik betetzen duenez eskatzen den formalitatea, bozketak honela egin dira:

Alderdi sozialistaren osoko zuzenketari bozketa:

#### ENMENDAKINARI Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak:1 (PSE-EE (PSOE))

Kontrako botoak:7 (BILDU)



Abstentzia: 5 (EAJ)

**Alkate jaunak ondorioz, enmendakina ez onartutzat eman du.**

PROPOSAMENARI Bozketa

Bilduk aurkeztutako aurrekontu proiektuari, adierazitako aldaketekin, bozketa.

Aldeko botoak: 7 (BILDU)

Kontrako botoak; 6 (EAJ 5, (PSE-EE (PSOE)1)

Abstentzia: 0

**Alkate jaunak ondorioz, proposamena onartutzat eman du honela jasota geratzen delarik.**

Proposamena

**2013 urteko ekitaldiko aurrekontua**

Osoko bilkurarako Gaietarako Batzordeak alkate jaunak idatzitako aurrekontu-proiektua aztertu zuen 2013ko otsailaren 20an egindako bilkuran, eta osoko bilkurara eramatea adostu zuen, bertan eztabaidatu eta onartzeko.

**AKORDIO PROPOSAMENA**

Alkate jaunak idatzitako 2013ko aurrekontu-proiektua onartzea. Proiektuak honako kapituluak ditu laburbilduta:

**SARRERAK**

<b>KAPITULUA</b>	<b>IZENA</b>	<b>EURO</b>
1	Zuzeneko zergak	2.351.055
2	Zeharkako zergak	200.000
3	Tasak eta bestelako diru-sarrerak	2.609.026
4	Transferentzia arruntak	7.832.813
5	Ondare sarrerak	210.332
6	Inbertsio errealak besterentzea	6.285.344
7	Kapital transferentziak	59.000
8	Finantza aktiboen aldakuntzak	45.000
9	Finantza pasiboen aldakuntzak	2.050.731
	<b>GUZTIRA</b>	<b>21.643.306</b>

**GASTUAK**

<b>KAPITULUA</b>	<b>IZENA</b>	<b>EURO</b>
1	Langileen ordainsariak	4.657.347
2	Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea.	6.127.904
3	Interesak	281.482
4	Transferentzia arruntak	1.880.609
6	Inbertsio errealak	3.871.792
7	Kapital transferentziak	31.000
8	Finantza aktiboen aldakuntzak	45.000
9	Finantza pasiboen aldakuntzak	3.872.290
<b>GUZTIRA</b>		<b>20.767.424</b>

Honako aurrekontu hauek bat egitearen ondorio direnak:

**UDALAREN BERAREN AURREKONTUA**

<b>SARRERAK</b>		<b>GASTUAK</b>	
Kap. 1.-	2.351.055	Kap. 1.-	3.663.165
Kap. 2.-	200.000	Kap. 2.-	2.966.171
Kap. 3.-	1.032.800	Kap. 3.-	48.417
Kap. 4.-	6.425.216	Kap. 4.-	2.964.030
Kap. 5.-	65.600		
Kap. 6.-	304.000	Kap. 6.-	827.940
Kap. 7.-	59.000	Kap. 7.-	117.300
Kap. 8.-	45.000	Kap. 8.-	45.000
Kap. 9.-	492.272	Kap. 9.-	342.920
<b>GUZTIRA</b>	<b>10.974.943</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>10.974.943</b>

**“SAN JOSE EGOITZA” ERAKUNDE AUTONOMOAREN AURREKONTUA**

<b>SARRERAK</b>		<b>GASTUAK</b>	
Kap. 1.-		Kap. 1.-	756.142
Kap. 2.-		Kap. 2.-	1.844.011
Kap. 3.-	831.030	Kap. 3.-	
Kap. 4.-	1.762.123	Kap. 4.-	
Kap. 5.-	7.000		
Kap. 6.-		Kap. 6.-	
Kap. 7.-		Kap. 7.-	
Kap. 8.-		Kap. 8.-	
Kap. 9.-		Kap. 9.-	
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.600.153</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>2.600.153</b>

**“HERRI ANTZOKIA” ERAKUNDE AUTONOMOAREN AURREKONTUA**

<b>SARRERAK</b>		<b>GASTUAK</b>	
Kap. 1.-		Kap. 1.-	88.150
Kap. 2.-		Kap. 2.-	88.625
Kap. 3.-	53.100	Kap. 3.-	50
Kap. 4.-	114.725	Kap. 4.-	
Kap. 5.-	9.000		
Kap. 6.-		Kap. 6.-	800
Kap. 7.-	800	Kap. 7.-	
Kap. 8.-		Kap. 8.-	
Kap. 9.-		Kap. 9.-	
<b>GUZTIRA</b>	<b>177.625</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>177.625</b>

**MAJORI KIROLDEGIA SM-ren AURREIKUSPEN BALANTZEA**

<b>SARRERAK</b>		<b>GASTUAK</b>	
Kap. 1.-		Kap. 1.-	149.890
Kap. 2.-		Kap. 2.-	1.155.320
Kap. 3.-	692.096	Kap. 3.-	6.000
Kap. 4.-	684.176	Kap. 4.-	70.006
Kap. 5.-	24.244		
Kap. 6.-		Kap. 6.-	85.500
Kap. 7.-	85.500	Kap. 7.-	
Kap. 8.-		Kap. 8.-	
Kap. 9.-		Kap. 9.-	19.300
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.486.016</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>1.486.016</b>

**ORDIZIA LANTZEN SM-ren AURREIKUSPEN BALANTZEA**

<b>SARRERAK</b>		<b>GASTUAK</b>	
Kap. 1.-		Kap. 1.-	
Kap. 2.-		Kap. 2.-	73.777
Kap. 3.-		Kap. 3.-	227.015
Kap. 4.-		Kap. 4.-	
Kap. 5.-	104.488		
Kap. 6.-	5.981.344	Kap. 6.-	2.957.552
Kap. 7.-		Kap. 7.-	
Kap. 8.-		Kap. 8.-	
Kap. 9.-	1.558.464	Kap. 9.-	3.510.070
<b>GUZTIRA</b>	<b>7.644.296</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>6.768.414</b>

Ondoren idatzi den Aurrekontua Betearazteko Udal Araua onartzea:

**2013ko AURREKONTUA BETEARAZTEKO OINARRIAK**

1.- 2013ko urteko ekonomi ekitaldian, Ordiziako Udalak bere Aurrekontuaren hasierako kredituen guztizko zenbatekoaren gehienez ere % 1eko abalak eman ditzake. Erakunde autonomoek ezin izango dute hirugarrenen aurrean abalak eman, ezta inolako bermerik hitzartu ere.

2.- Gastuen Aurrekontuko honako kontusail hauek handitu daitezke bakoitzarentzat ezartzen den finantziazioaren arabera.

<b>GASTUAK</b>		<b>SARRERAK</b>	
Partida	Kontzeptua	Partida	Kontzeptua
227.611.00.07	Foru Aldundiak herri-zergak kudeatzeagatikoa kontua	112.01, 112.02, 130.01 eta 130.02	Askotarikoak
227.611.00.09	Nahitaezko dirubilketarako kontratua	392.01 eta 393.01	Askotarikoak
226.222.12.99	Ibilgailuak kentzea	310.05	Ibilgailuak entzeagatikoa sarrerak
212.222.12.01	Bideko seinaleak mantentzea (pilonak)	399.01	Matxurak eragiten dituztenen sarrerak.

Alkatetzaren dekretu bidez onartuko da kreditua handitzeko espedientea.

3.- Funtzio-multzo beraren barruan egin beharreko kreditu-transferentziak Arlo bakoitzeko ardura duen Delegatuak eskatu beharko ditu, eta alkate jaunaren dekretu bidez onartu beharko dira.

Kontusailak gaintzen badira, eta egoera horretan dagoen ordezkariak egin beharreko transferentziak egitea proposatzen ez badu, Ogasun Ordezkariak egokien irizten dituen kontusailak hartuko ditu.

Funtzio-multzo ezberdinen arteko kreditu-transferentziak Osoko Bilkurari dagozkio. Inbertsioetarako kredituak murriztea ekarriko duten kreditu transferentzien espedienteetarako, Osoko Bilkuraren erabakia beharko da. Gai horretan, Alkate jaunarentzat zehaztutako eskumen berberak izango dituzte Erakunde Autonomoetako buruek.

4.- Kontu-hartzaileak prestatuko du kredituak erabiltzeko espedientearen zirriborroa, horretarako honako faseetan geratu diren gastuei erreparatuko die: abenduaren 31n Baimenduan (B) edo Xedatutakoan (X) zeudenak. Alkate jaunari dagokio espedientea onartzea.

5.- Alkateak kreditu gehigarrien espedienteak onar ditzake, baina beti ere, metatuz gero, diru-sarrera arruntzen aurrekontuaren %5a baino gehiagokoa ez bada.

6.- 'Maileguak langileei' 833.121.00.01 kontusaileko kredituak eskuratzeko, interesdunek eskaera egin beharko dute, eta proposatutako eta aurrekontuan jasotako gastua justifikatu beharko dute. Ogasun Ordezkaritzak ebatziko du mailegua ematea bidezkoa den ala ez; oniritzia jasoz gero, alkate jaunaren dekretuz betearaziko da.

7.- Dedikazio eskusiboa duten kargu politikoen eta zinegotzien ordainsariak gutxitu egin dira aurrekontu hau doitu ahal izateko, krisi ekonomikoak kaltetu dituen pertsonetikiko elkertasunean.

8.- Aurrekontuan aurreikusitakoak baino diru-laguntza finalista handiagoak emateko, kopuru berdineko gastu-kredituak gaitu beharko dira dagozkien gastu-partidetan. Alkate jaunak baimenduko du gaitze hori.

9.- Honako hauen inguruko gastuak egiteko:

- Langileak kontratatzea
- Lanak kanpokoekin kontratatzea.
- Mantentze-lan hutsak ez diren obrak edo lanak udal-zerbitzuek beraiek egitea
- Material inbentagarria erostea.

Alkatetzaren dekretu bidezko alde aurretiko onarpena behar izango da, eta aurrez kontu-hartzailearen txostena eskatu beharko da. Alkatetzaren aldeko dekretua jasotzen ez den bitartean, erabat geldituko da gastu-espedientearen tramitazioa.

10.- Bi (2) hilabetean behin kontu-hartzaileak aurrekontu-partiden egoeraren berri emango die ordezkariari; horiek behar diren neurriak hartu beharko dituzte onartutako kreditua ez gairatzeko. Erabilgarri dagoen kreditua behar adinakoa ez dela irizten bada, bai aparteko gastuak izan direlako, bai Aurrekontua egiterakoan ezagutzen ez ziren beste premia batzuk daudelako, dagokion Ordezkaritzak kreditu-gehiagari ematea proposatuko du; horretarako, dagokion finantziarioa proposatu beharko du, edo kreditu-soberakina eskatu beharko du, halakorik balego.

11.- Dietak.- Udalaren ordezkariak, Alkateak eta Zinegotziek, eta udal-langileek joan-etorriengatik sortzen zaizkien gastuak kobratzeko eskubidea izango dute, beti ere joan-etorri horiek udalaren eskumenekoak diren gaiak kudeatzeko egiten direnean; horretarako, Korporazioak baimena emana behar du. Gastu horien kopurua honako hau izango da:

Autonomia Erkidego barruko joan-etorria norberaren ibilgailuan, 0,29 euro/km. Gosariak: 6 euro. Bazkaria: 16 euro. Afaria: 16 euro.

Ostatu hartzea: gehienez pertsona/eguneko/ 100 euroko gastua duen hotela.

Ikastaroetara nahiz azoketara joanez gero, bazkari, afari eta ostatu hartzeko ere ezarritako mugak aplikatuko dira. Erakunde arteko harremanengatik aipatu horiek baino gastu handiagok

egin behar direnean soilik estaliko ditu horiek Udalak, aurrez gastuei dagozkien fakturak ekarrita.

Kredituak likidatzerakoan, agiriak egiterakoan edo konpromisoak hartzerakoan Udaleko buru, funtzionario eta kideek ordainketa oker guztiak itzultzeko erantzukizuna izango dute, hartuta dituzten eginkizunen arabera. Edozein motako agintari eta funtzionarioek, iruzurratik, erruagatik edo arduragabekeria larriagatik lege-xedapenak hautsiz erabakiak hartu edo egintzak egiten badituzte, horien ondoriozko kalte eta galerak ordaintzera behartuta daude Korporazioari.

Dena dela, gastuak eta ordainketak egintzen dituenak eta kontu-hartzaileak, aipatu gastu eta ordainketa horiek desegokiak direla idatziz ohartarazten ez badu, baimentzen dituzten behar adinako krediturik gabeko gastu guztien erantzule izango dira, baita aitortzen, kitatzen edo ordaintzen duten obligazio guztien erantzule ere.

13.- Salmentak.- Alkatetzaren aginduz egingo da ezertarako ez diren gauzen salmenta, aipatu gauzek 360.- euro baino gutxiago balio dutenean. Nolanahi ere, esan behar da Udalaren beste erabakirik behar ez duten salmentetarako oinarria dela hori.

14.- Alkateak ez du bere eskumenik inoren esku utzi, eta ondorioz, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21. artikuluan xedatutakoak ditu bere esku.

15.- Kredituen lotespen juridikoaren mailak honako hauek izango dira:

Funtzio-programa eta azalpena.

Transferentzia arruntak eta kapital-transferentziak  
Inbertsio errealak  
Finantza aktiboen aldakuntzak

Funtzio-programa eta azalpena.

2. kapitulua (elektrizitate, ur, gas eta erregai horniduren partidak izan ezik, hauek Aurrekontu osorako azpikontzeptu ekonomiko gisa azalduko dira).

Kapitulua

Langile gastuak

Finantza gastuetako 3. kapitulua eta Finantza Pasiboen aldakuntzetako 9. kapituluak uztartuta geratzen dira.

2. kapituluko kontusail askoren gastuak urte guztian zehar sortzen direla kontuan hartuta, eta, kredituen lotespen juridikoaren mailak zorrotz aplikatzearen ondorioz, aipatu kontusailtako kredituak agortu ez daitezzen, kontu-hartzailetzaren aurrekontu-partidarekiko kontrola 2013ko azarora arte egingo da.

Gainera, ondorengo kontusail hauei, banan-banan, urte osoan egingo zaie jarraipena, nahiz eta azkenean artikulua honen hasieran ezarritako kredituen lotespen juridikoko mailak aplikatu.

PARTIDA	IZENA
226.111.00.02	Protokolo-arretak, gobernu-organoak
231.111.00.01	Dietak, joan-etorriak, gobernu-organoak.
213.222.11.01	Ibilgailuen mantentze-lana, udaltzaingoa.
210.222.12.01	Bide-seinaleen mantentze-lana, trafikoa.
211.422.12.01	Eraikinen mantentze-lana, Urdaneta ikastetxea.
212.422.12.01	Makineria, instalazio eta lanabesen mantentze-lana, Urdaneta ikast.
227.432.10.07	Hirigintzako azterketa teknikoak
212.433.00.01	Makineria, instalazio eta lanabesen mantentze-lana, argiteria.
212.434.11.01	Instalazio, parke eta lorategien mantentze-lana.
210.441.20.01	Makineria, instalazio eta lanabesen mantentze-lana, saneamendua.
226.451.10.99	Kultur ekintzak
226.454.11.99	Herriko jaiak
226.454.12.98	Euskal jaiak Beste ospakizun batzuk
226.454.12.99	Euskal jaiak Asteazkena.
226.454.13.98	Eguberrietako apaingarriak
226.454.13.99	Eguberriak
210.511.00.01	Bide publikoen mantentze-lanak
226.622.31.91	“Artzain Eguna” azoka
226.622.31.92	Erdi Aroko Azoka
226.622.31.97	Ardo Azoka
226.622.31.99	Eguberrietako ezohiko azoka.

16.- Ordainketak. Ordainketak, oro har, banku-transferentzia bitartez egingo dira.

Ordainketak, faktura Udalaren kontu-hartzaitetza departamentuan sartu edo faktura data baino 30 egun lehenago egingo dira; bi datak oso desberdinak badira, obra-ziurtagiriaren data kontuan izango da; betiere, nahitaezko oniritzia edo akordioa badu.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

#### **4.- 2013 ekitaldiko Plantilla Organikoa.**

##### Proposamena

Toki Entitateen Oinarriak Arautzen dituen 1.985ko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 90. artikulua eta Euskal Funtzio Publikoko 6/89 Legearen 20. artikulua zehazten duenaren arabera, Udaleko osoko bilkurari dagokio urtero Aurrekontuak onartzea, eta funtzionarioen, langile finko eta aldi baterako langileen lanpostu guztiak bateratzen dituen langileen plantilla.

Aipatutako arautegia betetzeko eta dauden aurrekariekin, azterketa eta justifikatzeko agiriekin, Idazkaritzak eta Kontu-hartzaitzak Udal honetako 2013 urterako Plantilla Organikoa eratu dute, aipatutako aginduek zehazten dituzten irizpideei erantzunez, aipatuz iazko zerrendarekiko aldaketei dagokienez, kontuan izan direla Balorazio Batzordeak 2013ko urtarrilaren 28 eta 2013ko otsailaren 18ko bileretan hartutako erabakiak, eta baita 2013ko otsailaren 25eko Toki Gobernu Batzordean adostutako diktamenak.

Horrekin batera Majori Kiroldegiak eta OOAA (San Jose Egoitza eta Herri Antzokia), goian aipatutako artikulua kontuan hartuta, 2013 urteko ekitaldirako dagozkien Plantilla Organikoak egin dituzte eta onartzeko Osoko Bilkurarako Gaiak Batzordean aurkeztu.

Aurrekoa kontuan hartuta, honako erabakia hartzea proposatzen da

#### AKORDIO PROIEKTUA

**Lehena.- 2013 urteko ekitaldirako Plantilla Organikoa onartzea, Udal honetako langile funtzionarioei dagozkien plazak dituenak, eta erabaki honen ERANSKIN gisa doana.**

**Bigarrena.- Majori kiroldegia SL eta OOAAen (San Jose Egoitza eta herri Antzokia) Plantilla organikoak onartzea, 2013 urteko ekitaldirako langile finkoentzat gordetako lanpostu guztiak dituenak.**

**Hirugarrena.-GAOn onartutako agiri hauek argitaratzea, toki-arautegi gaietan indarrean dauden lege xedapenei buruzko Testu bateratuaren 127 artikulua zehaztutakoa betez.**

**Laugarrena.- Agiri hauek behin betiko onartzea, erreklamaziorik aurkezten ez bada.**

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

#### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Alkate jn.

Alkate jaunak, 2013ko ekitaldiko plantila organikoa aurkezterakoan, 2012ko plantila organikoarekiko dauden aldaketen laburpena egin du eta aipatu du aldaketa hauek oinarritzen direla Balorazio Batzordeak 2013ko urtarrilaren 28 eta 2013ko otsailaren 18ko bileretan hartutako erabakietan, eta baita 2013ko otsailaren 25eko Toki Gobernu Batzordean adostutako diktamenetan.

#### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:



Aldeko botoak: 7 (BILDU 7,)  
Kontrako botoak: 6 (PSE-EE (PSOE)1, EAJ/PNV 5)  
Abstentzia: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

### **5.- 2013 ekitaldiko lanpostuen zerrenda.**

#### Proposamena

Toki Entitateen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 90.2 artikulua eta Euskal Funtzio Publikoko Legearen 14. artikulua zehazten duenaren arabera, Udaleko osoko bilkurari dagokio lanpostu zerrenda onartzea, aurrekontuetan aurreikusitako guztiak jaso beharko ditu, funtzionarioak, langile finkoak eta aldi baterako langileak bereiziz.

Aipatutako araudia oinarri harturik, Idazkaritza eta Kontu-hartzailtza Sailak lanpostuen zerrenda eratu du, Euskal Funtzio Publikoaren legearen 15 artikuluan zehaztutako irizpideak kontuan hartuz, aipatuz iazko zerrendarekiko aldaketei dagokienez, kontuan izan direla Balorazio Batzordeak 2013ko urtarrilaren 28 eta 2013ko otsailaren 18ko bileretan hartutako erabakiak, eta baita 2013ko otsailaren 25eko Toki Gobernu Batzordean adostutako diktamenak.

Horrekin batera, hizkuntz normalizazio plangintzarako 86/1997 Dekretuaren 9 artikulua zehaztutako prozeduraren tramitazioa amaituta, Euskal Funtzio Publikoaren 6/89 Legearen 97 artikulua zehaztutakoaren arabera, hizkuntz eskakizunak eta derrigortasun-data lanpostuen zerrendan finkatuta egon behar dute.

Bestalde, Majori Kiroldetgia SL eta OOAA-k (San Jose Egoitza eta Herri Antzokia), 2013 urteko ekitaldirako Lanpostuen Zerrendak eratu dituzte, aurrekontuetan behar bezala finkatuta.

Hau guztia kontuan izanik, honakoa proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

**Lehen.- 2013 urteko ekitaldirako Lanpostu Zerrenda onartzea, Udal honen zerbitzura dauden lanpostu guztiak barnean dituen, aurrekontu-dotazioak dituztela, erabaki honetako ERANSKIN ereduan dagoen bezala.**

**Bigarrena.-** Majori Kiroldegia SL-ko eta OAAA-etako (San Jose Egoitza eta Herri Antzokia) lanpostu guztiak, 2013 urteko ekitaldirako Lanpostuen Zerrendak onartzea, dagozkion aurrekontu-dotazioak dituztela.

**Hirugarrena.-**GAOn onartutako agiri hauek argitaratzea, toki-arautegi gaietan indarrean dauden lege xedapenei buruzko Testu bateratuaren 127 artikulua zehaztutakoa betez.

**Laugarrena.-** Lanpostuen Zerrenda behin betiko onartzea, erreklamaziorik aurkezten ez bada.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

#### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Alkate jn.

Alkate jaunak, 2013ko ekitaldiko lanpostuen zerrenda aurkezterakoan, 2012ko lanpostuaren zerrendarekiko dauden aldaketen laburpena egin du eta aipatu du aldaketa hauek oinarritzen direla Balorazio Batzordeak 2013ko urtarrilaren 28 eta 2013ko otsailaren 18ko bileretan hartutako erabakietan, eta baita 2013ko otsailaren 25eko Toki Gobernu Batzordean adostutako diktamenetan.

#### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (BILDU 7)

Kontrako botoak: 6 (PSE-EE (PSOE)1, EAJ/PNV 5)

Abstentzioa: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

### **6.-Gazte lokalei buruzko udal Ordenantzari hasierako onarpena ematea**

#### Proposamena

Ordenantza honen xedea honako hau da: batez ere gazteek aisialdi alternatiborako erabiltzen dituzten guneek, nahitaez, gutxieneko segurtasun eta garbitasun baldintzak betetzen dituztela bermatzea, eta, bestalde, erabiltzaileei eta auzotarrei trabarik eta arriskurik ez sortzea.

Udalerrian dauden gazte lokalen erabilera arautzea du helburu ordenantza honek.

Toki Entitateen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 d) artikulua zehazten denaren arabera, Udalarri dagokio ordenantzak onartzea.

Aipatutako Legearen 49 artikulua zehazten denaren arabera, araudi eta ordenantzak honako prozedura jarraitu beharko dute:

- a) Osoko bilkuraren hasierako onarpena
- b) Jende aurreko informazioa eta interesatuei erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko hogeita hamar eguneko gutxieneko epea ematea.
- c) Epe horretan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizunen ebazpena eta osoko bilkuraren behin betiko onarpena.

Erreklamaziorik ego iradokizunik aurkeztuko ez balitz, hasierako erabakia behin betiko bihurtuko da, erabaki berririk hartzeko beharrik izan gabe.

Osoko Bilkurako Gaien Batzordearen aldeko irizpenarekin, honakoa onartzea proposatzen da:

## AKORDIO PROIEKTUA

**1.- Ordiziako gazte lokalei buruzko udal Ordenantzari hasierako onarpena ematea.**

**2.- Ordenantza jendaurrera zabaltzea iragarki taulan eta Gipuzkoako aldizkari Ofizialeko iragarki bidez 30 eguneko apean, interesatuei erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko aukera emateko, eta Udalak ebatziko ditu iradokizun hauek.**

**3.- Erreklamaziorik ez balego, akordio berririk gabe Ordenantzak behin betiko onartutko dira.**

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Asenjo jn.

Hartu du hitza eta adierazi du gaur egun 8 gazte lokal daudela Ordizian eta aspaldidanik gai hau erregulatzeko asmoa bazegoen ere, beti atzeratzen joan dela, baina azkenik ordenantza bat prestatzea lortu dela. Aurkeztu den ordenantzari dagokionez, azpimarratu du indarrean dauden beste ordenantza batzuk oinarritzat hartu direla, konkretuki Urnieta eta Lezokoak malguenak direla iritzi delako, eta jarraitu du esanez ahalegin bat ere egin dela gai hau Beasain eta Lazkaoko Udalekin batera arautzeko baina ez dela posible izan, eta ahalegin hori egiteak ere atzerapena ekarri duela. Bukatzeko eta xedapen iragankorrari dagokionez, nahiz eta aurkeztutako ordenantzan urtebeteko epea jarri,

ordenantza hau indarrean sartzen denetik, gaur egun zabalik dauden eta gazteen aisialdirako lokal gisa funtzionatzen ari diren lokalak egokitzeko, adierazi du 8 hilabeteko epea nahikoa dela, eta aldaketa hau egitea proposatu du.

#### Dubreuil jn:

Dubreuil jaunak bere poza azaldu du 4 urte eta gero ordenantza hau ekarri delako; bestalde adierazi du faltan botatzen duela gai honen inguruan partehartze prozesua egin ez izana; nahiz eta konsziente izan gai honetan horren postura kontrajarriak daudenez partehartze prozesu bat egitea zaila izango zela, ulertzen du egin balitz ordenantza hobetu egingo litzatekeela. Bukatzeko, adierazi du ordenantzaren alde bozkatuko duela, baldin eta lokalak egokitzen laguntzeko ordenantzarekin batera dirulaguntza programa bat eratzen bada.

#### Asenjo jn.

Adierazi du ez duela inongo arazorik autokritika egiteko, eta edozein moduan ordenantza hau abiapuntutzat hartu behar dela eta jendaurreko erakusketa egin behar denez, ez dagoela inongo arazorik jendaurreko epealdian aportazio berriak edo hobetzeko proposamen berriak aurkezten badira, tratatu eta bere kasuan egin behar diren aldaketak egiteko.

#### Alkate jn.

Dubreuil jaunak lokalak egokitzen laguntzeko dirulaguntza programa bat eratzeko proposamenari buruz, adierazi du ez zaiola iruditzen Udalak laguntzak eman behar dituenik, denok dakigunean jabeek lokal hauek gazteei alokatzeko hiru, lau edo bost aldiz gehiagoko errenta-prezinoa lortzen dutela. Bukatu du esanez ez jabeek dirulaguntzak eman, baizik eta gazteei gazteria eta komunikazio sailetik informatu beharko zaiela honelako motako alokairuen aurrean nortzuk diren eta nola bermatu beraien eskubideak, eta abar.

#### Dubreuil jn:

Adierazi du honelako ordenantzak onartu dituzten Udal gehienek, dirulaguntzak ezarri dituztela, eta Eibarko kasua aipatu du. Bukatu du esanez ez zaiola inongo astakeria iruditzen egiten duen dirulaguntza proposamena.

#### Santamaria jn:

Adierazi du bere taldea ados dagoela aurkeztutako ordenantzarekin, eta honek bizikidetzan laguntza eta lasaitasuna ekarriko duela; dirulaguntzaren gaiari buruz, posible bada, ados egongo litzateke dirulaguntza programa bat ezartzearekin.

#### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, PSE-EE (PSOE)1, EAJ/PNV 5)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

### **7.- Eskaerak eta galderak**

Ez dago.



Gai gehiago ez dagoenez, Alkateak Osoko Bilkura amaitutzat eman du, eta batzordearen akta idatzi da, eta nik, idazkariak egiaztatzen dut.